



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

X. legegintzaldia

Iruña, 2023ko ekainaren 15a

73. ZK.

A U R K I B I D E A

G SAILA:

Txostenak, deialdiak eta Parlamentuko informazioa:

—10-23/CCO-00014. Irurtzango Udalaren 2021eko ekitaldiko kontu orokorrari buruzko fiskalizazio-txostena, Kontuen Ganberak egina (2. or.).

G saila:
TXOSTENAK, DEIALDIAK ETA PARLAMENTUKO INFORMAZIOA

10-23/CCO-00014. Irurtzungo Udalaren 2021eko ekitaldiko kontu orokorrari buruzko fiskalizazio-txostena, Kontuen Ganberak egina.

Nafarroako Parlamentuko Batzorde Iraunkorrek, 2023ko ekainaren 5ean egindako bilkuran, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Kontuen Ganberak Irurtzungo Udalaren 2021eko ekitaldiko kontu orokorrari buruzko fiskalizazio-txostena egin du.

Nafarroako Kontuen Ganbera arautzen duen abenduaren 20ko 19/1984 Foru Legearen 8.c) artikuluari dagokionez Nafarroako Parlamentuko

Erregelamenduaren 230. artikuluan ezarritakoarekin bat, hona hau ERABAKI DA:

1. Adieraztea Irurtzungo Udalaren 2021eko ekitaldiko kontu orokorrari buruzko fiskalizazio-txostenaren edukiaren jakinaren gainean dagoela.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2023ko ekainaren 5ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

AURKIBIDEA

I. SARRERA	4
II. HELBURUA, NORAINOKOA ETA MUGAK.....	4
III. IRITZI-ERREFUSA	5
IV. IRITZI-ERREFUSAREN OINARRIA.....	5
V. AUDITORETZAKO FUNTSEZKO GAIAK.....	5
VI. BESTE GAI BATZUEI BURUZKO PARAGRAFOA.....	6
VII. BESTELAKO LEGE- ETA ERREGELAMENDU-ERREKERIMENDUEI BURUZKO TXOSTENA	6
VIII.1 Langileria-kudeaketaren legezkotasuna egiaztatzea	6
VIII.2 Kontratugintzako legezkotasuna egiaztatzea	6
VIII. IRURTZUNGO UDALAREN ERANTZUKIZUNA	7
IX. NAFARROAKO KONTUEN GANBERAREN ERANTZUKIZUNA.....	7
X. GOMENDIO GARRANTZITSUENAK	7
1. ERANSKINA. IRURTZUNGO UDALAREN 2021EKO EKITALDIKO KONTU OROKORRAREN LABURPENA	9
2. ERANSKINA. IRURTZUNGO UDALA	13
3. ERANSKINA. ARAU-ESPARRUA	15
4. ERANSKINA. SALBUESPENEI BURUZKO INFORMAZIO GEHIGARRIA.....	16
4.1 Barne-kontrola.....	16
4.2. Diruzaintza	16
4.3 Lanpostu-osagarriak	17
5. ERANSKINA. FISKALIZAZIO FINANTZARIOKO BESTE OHAR ETA AURKIKUNTZA BATZUK	19
5.1 2021eko aurrekontu orokorra	19
5.2 Aurrekontu-egonkortasunaren eta finantza-iraunkortasunaren printzipioak	19
5.3 Langileria-gastuak.....	20
5.4 Ondasun arruntetako eta zerbitzuetako gastuak.....	22
5.5. Inbertsioak.....	24
5.6 Transferentzia-gastuak.....	26
5.7 Tributuak, prezio publikoak eta beste diru-sarrera batzuk.....	27
5.8 Transferentziengatiko diru-sarrerak	29
5.9. Ondare bidezko diru-sarrerak.....	30
5.10. Inbertsio errealeen besterentzea.....	31
5.11 Hirigintza	31
BEHIN-BEHINEKO TXOSTENARI AURKEZTUTAKO ALEGAZIOAK	32
BEHIN-BEHINEKO TXOSTENARI AURKEZTUTAKO ALEGAZIOEI KONTUEN GANBERAK EMANDAKO ERANTZUNA	43

I. SARRERA

Kontuen Ganberak, berari buruzko abenduaren 20ko 19/1984 Foru Legeari eta 2022ko bere jarduketa-programari jarraikiz, Irurtzungo Udalaren 2021eko ekitaldiko Kontu Orokorra fiskalizatu du.

Azterketa lana 2022ko urritik azarora bitartean egin zuen auditoria-konpainia batek; gero, lanaren irismena areagotu egin zuen ekipo batek, zeina auditoretza-teknikari batek eta auditore batek osatua baitzegoen. Laguntzaile aritu ziren Kontuen Ganberako zerbitzu juridikoak, informatikoak eta administratiboak.

Jarduketa horren emaitzak Irurtzungo Udaleko alkateari jakinarazi zitzaizkion, egokitzat jotzen zituen alegazioak aurkez zitzan, Nafarroako Kontuen Ganbera arautzen duen 19/1984 Foru Legearen 11.2 artikuluan ezarritakoari jarraituz. Ezarrita dagoen epea igaro delarik, aipatu alkateak aurkeztu egin ditu alegazioak. Alegazio horiek aztertu ondoren, txostenean jaso dira, eta behin betikoa bihurtu da txostena.

Eskerrak eman nahi dizkiegu Irurtzungo Udaleko langileei, lan hau egiteko emandako laguntza-rengatik.

Txosten honetako datu ekonomiko guztiak eurotan eman dira, biribilduta, zentimorik ez agertzeko. Emandako datuek eta ehunekoek beti adierazten dute balio zehatz bakoitza biribilduta, eta ez biribildutako datuen batura.

II. HELBURUA, NORAINOKOA ETA MUGAK

Gure lanaren xedea da gai hauei buruz gure iritzia ematea:

- Ea 2021eko ekitaldiko kontu orokorrak, alderdi esanguratsu guztietan, irudi fidela ematen duen 2021eko abenduaren 31ko ondareari, finantza-egoerari, aurrekontu-likidazioari eta emaitza ekonomikoari buruz, aplikatzekoa den arau-esparruari jarraikiz eta, bereziki, bertan jasota dauden kontabilitateko eta aurrekontuko printzipio eta irizpideei jarraikiz.

- Horrez gain, eta finantza-fiskalizazioaz denaz bezainbatean, Udalak legezketasuna bete ote duen aztertu da, langileriarri eta administrazio-kontratazioari dagokienez. Konklusioak VII. atalean daude jasota. "Bestelako lege- eta erregelamendu-errekerimendu batzuei buruzko txostena".

Lanaren norainokoak barne hartzen du 2021eko ekitaldiko kontu orokorra, azken horrek 273/1998 Foru Dekretuan jasotzen den edukia duela:

- Udalaren kontua.

a) Aurrekontu-likidazioaren espedientea.

b) Ekonomia- eta ondare-egoeraren eta finantza-egoeraren espedientea, eta horren eranskinak.

- Kontu Orokorraren eranskinak.

a) Kontu Orokorraren edukiari buruzko oroitidazkia.

b) Zorraren egoera-orria.

c) Kontu-hartzaitzaren txostena, Kontu Orokorrari buruzkoa. Bertan gutxienez ere aztertuko da zorpetzea eta laurteko inbertsio-planen bilakaera.

Fiskalizazioaren denbora-norainokoa 2021eko ekitaldiari dagokio, baina beste ekitaldi batzuei buruz behar diren egiaztapenak egin dira, ezarritako helburuak hobeki lortzeko.

Gure lana baldintzaturik eduki dute norainokoaren mugek eta txostenaren IV. atalean identifikatu ditugun ziurgabetasunek.

III. IRITZI-ERREFUSA

Nafarroako Kontuen Ganberak, berari buruzko 19/1984 Foru Legeak esleitzen dizkion eskumenak baliatuz, Irurtzungo Udalaren Kontu Orokorra fiskalizatu du. Kontu Orokorrak honako hauek barne hartzen ditu: 2021eko abenduaren 31ko balantzea eta data horretan amaitutako ekitaldiari dagozkion ekonomia- eta ondare-emaitzaren kontua eta aurrekontu-likidazio orria.

Ez dugu iritzirik ematen 2021eko abenduaren 31n Irurtzungo Udalak zeukan Kontu Orokorri buruz. Gure txostenaren "Iritzi-errefusaren oinarria" deritzon atalean azaldutako gorabeheren eragin oso nabarmenaren ondorioz, ezin izan dugu auditoretza-ebidentziarik lortu, aipatu kontu orokorrari buruzko auditoretza-iritzirik eman ahal izateko moduko oinarria ematen duenik, behar bezainbestekoa eta behar bezalakoa.

IV. IRITZI-ERREFUSAREN OINARRIA

- Udalean barne-kontrol egokirik ez egoteak ahulezia nabarmenak jarri ditu agerian, eta horiek erakusten dute arriskua egon dela zenbait ekitalditan zehar errepikapenez eginiko finantza- eta kontabilitate-eragiketetan; nagusiki, ez delako behar bezalako funtzio-bereizketarik izan, enplegatu publiko bakar batengan kontzentratuta egon baita kudeaketa finantzarioaren prozedura ia-ia osoa.

- Eginiko berrikuspenean ikusi ahal izan da ezen plantilla organikoaren 32 postuetatik 13tan – ehuneko 41ean, alegia– lanpostuko osagarri gisa ordaindu dela plantilla organikoan ezartzen den baino gehiagoko kopuru bat, halakorik justifikatzen duen oinarririk gabe. Horietako bederatzitan ezin izan dugu kuantifikatu ea 2021ean jasotako ordainsariak zuzenak ote ziren; horrela, ba, ezezaguna zaigu langile-gastuen parte handi batek finantzen egoera-orrien osotasunean izan dezakeen eragina.

- a) Udalak ez du ondasun-inbentario ongi identifikatu eta baloraturik; hori dela-eta, ezin izan dugu egoera-balantzeko ibilgetuaren saldoaren arrazoizkotasuna egiaztatu —2021eko abenduaren 31n, 12.846.372 euroko zenbatekoa egiten zuen—.

- Egoera-balantzearen pasiboak ez du erakusten, 2021eko abenduaren 31n, 63.187 euroko kopuru bat, 2014ko ekitaldian formalizaturiko finantza-errentamendu batetik itzulkizun dagoena. Era berean, egoera-balantzearen aktiboan ez dira agertzen aipatu finantza-operazioaren bidez eskuraturako pabiloia eta lursaila, zeinak, osotara, 378.048 euroan baloratuta baitzeuden hura formalizatzeko unean.

Gorabehera horien ondorioz, ezinezkoa izan zaigu Irurtzungo Udalaren 2021eko ekitaldiko Kontu Orokorrean izan dituzten ondorioak zehaztea.

Kanpo-kontrolako erakunde publikoek erabakitako funtsezko fiskalizazio-printzipioen arabera egin dugu fiskalizazioa, eta, zehazki, finantza-fiskalizazioari buruzko ISSAI-ES 200 arauan ezarritakoaren arabera; halaber, kanpo-kontrolako organoen fiskalizazio gida praktikoak (GPF-OCEX) erabili ditugu. Arau horien indarrez dugun erantzukizuna aurrerago deskribatzen da, txosteneko "Kontuen Ganberaren erantzukizunak" atalean hain zuzen ere.

V. AUDITORETZAKO FUNTSEZKO GAIAK

Auditoretzako funtsezko gaiak dira, gure iritzi profesionalaren arabera, esanahi handiena izan dutenak aztertutako aldiko kontu orokorrari egin diogun fiskalizazioan. Gai horiek kontu orokorraren osotasunari buruzko gure auditoretzaren testuinguruan eta kontu orokorrari buruzko gure iritzia taxutzerakoan jorratuak izan dira, eta afera horiei buruzko iritzirik ez goaz bereiz adieraztera.

Txosten honetako "Iritzi-errefusaren oinarria" atalean azaldutako gorabeherak salbu, ez dugu gure fiskalizazioan giltzarritzat jotako inolako gairen berririk ematen.

VI. BESTE GAI BATZUEI BURUZKO PARAGRAFOA

• 2021ean, COVID-19aren pandemiak gastu eta diru-sarrerak sortzen segitu zuen, eta udalean 42.595 eta 20.981 euroan estimatu ditugu hurrenez hurren, honako taula honetan zehazten den bezala:

COVID-19aren kudeaketa	Zenbatekoak
Diru-sarrerak	20.981
Dirulaguntzak:	20.981
Gastuak	42.595
COVID larrialdirako laguntzak	16.369
Langileria-gastuak	26.226

• M.M. Consulting Financiero auditoretza-enpresak egin du, Nafarroako Kontuen Ganberarekin sinaturiko kontratuaren kariatz, auditoretzapean jarritako entitatearen kontu orokorraren fiskalizazi-orako landa-lana. Kontuen Ganbera enpresa horrek egindako lanean oinarritu da txosten hau egiteko.

VII. BESTELAKO LEGE- ETA ERREGELAMENDU-ERREKERIMENDUEI BURUZKO TXOSTENA

Udalaren Kontu Orokorrari buruz egin dugun finantza-auditoretzan aurreikusitako norainokoa-ekin, honako hauetan legezkotasuna bete ote den aztertu dugu:

• Langileen kudeaketan, zeina abuztuaren 30eko 251/1993 Legegintzako Foru Dekretuak arautzen baitu gehienbat; horren bidez, Nafarroako Administrazio Publikoen zerbitzuko Langileen Estatutuaren Testu Bategina onetsi zen, bai eta hura garatzeko xedapenak ere.

• Kontratazio publikoaren kudeaketan. Kontratu Publikoei buruzko apirilaren 13ko 2/2018 Foru Legeak arautzen du gai hori.

Egiaztapen hori egiteko, zenbait auditoretza-prozedura erabili ditugu: ezarritako barne-kontrolaren egiaztapena, bai eta auditoretza-lanaren planifikazioan aurreikusitako prozedura analitiko eta substantiboak ere.

Ebidentzia nahikoa eta egokia lortu dugu pentsatzeko ezen aplikatutako prozedurekin bete egin direla legezkotasun-alderdi esanguratsuenak, salbu eta ondoko apartatuetan nabarmentzen ditugun gaietan.

VIII.1 LANGILERIA-KUDEAKETAREN LEGEZKOTASUNA EGIAZTATZEA

• Lau enplegatu publikoren kasuan lanpostuko osagarriak behar bezalako lege-euskarririk gabe kobratzeagatik eskuratutako gehiegizko ordainsariak eta, bestetik, garbiketako langileei pagatutako ordainsariak egokiak ote diren ezin ondorioztatzea, horiek gai garrantzitsu gisa identifikatu dira gure txostenaren IV. atalean.

VIII.2 KONTRATUGINTZAKO LEGEZKOTASUNA EGIAZTATZEA

• 107.805 euro egiten duten gastuak ordaindu dira kontratu-euskarririk gabeko zerbitzu eta hornidurengatik; kasu batzuetan, ez delako izapidetu kasuko adjudikazio-prozedura, nahiz eta betebeharrak aitortuek gainditu egiten dituzten zuzenbideak beraien izapidetzerako aurreikusten dituen zenbatekoak; eta, beste batzuetan, kontratuen gehieneko indarraldia gainditu egin delako.

VIII. IRURTZUNGO UDALAREN ERANTZUKIZUNA

Udaleko Kontu-hartzailletza da kontu orokorra egiteko ardura duena. Halako moduz egin behar du non leialki irudikatuko baititu entitatearen aurrekontu-likidazioa, ondarea, finantza-egoera eta emaitzak, entitateari aplikatzekoa zaion finantza-informazio publikoaren arloko araudia beterik. Bermatu egin beharko du, halaber, kontu orokorrean islatutako jarduerak, aurrekontu- eta finantza-eragiketak eta informazioa bat datozela aplikatu beharreko araudiarekin.

Udalaren erantzukizuna da, gainera, beharrezkotzat jotzen dituen barne kontroleko sistemak ezartzea, bermatu ahal izateko kontu orokorrean iruzurraren edo errorearen ondoriozko oker materialik ez dagoela eta egindako jardueran lege-urratzerik ez dagoela.

Udalaren 2021eko ekitaldiko kontu orokorra Udalaren Osoko Bilkurak onetsi zuen, 2022ko urriaren 25ean.

IX. NAFARROAKO KONTUEN GANBERAREN ERANTZUKIZUNA

Gure erantzukizuna da udalaren kontu orokorraren fiskalizazioa egitea kontu-auditoretzari buruzko araudi indardunari jarraikiz, eta auditoretza-txosten bat jaulkitzea.

Alabaina, gure txostenaren "Iritzi-errefusaren oinarria" deritzon atalean azaldutako gorabeheren muntaren ondorioz, ezinezkoa izan zaigu auditoretza-ebidentziarik lortu, aipatu kontu orokorrari buruzko auditoretza-iritzirik eman ahal izateko moduko oinarria ematen duenik, behar bezainbestekoa eta behar bezalakoa.

Kontu orokorrari buruzko fiskalizazioan aplikatu behar ditugun eskakizun etikoekin eta independentzia babesteari buruzkoekin bat, entitatearekiko independenteak gara, fiskalizazio publikoko jardueraren gaineko araudiak exijitzen duen bezala.

X. GOMENDIO GARRANTZITSUENAK

Finantza-fiskalizazioko lanaren emaitza gisa, bidezko da gomendio garrantzitsuenak egitea, jarraian adieraziak:

- *Urgentziaz berrikustea udalaren barne-kontrolaren antolaketa-sistema, eta funtzio-bereizketa egoia ziurtatzea.*
- *Udalaren faktura guztietan identifikatu eta jasotzea arlo bakoitzeko arduradunaren sinadura, emandako zerbitzuari oniritzia ematen diona kontabilizatua izan aurretik, bai eta alkateak gastu guztietarako emandako baimena ere, horixe izaki organo eskudun bakarra, aplikatzekoa den toki-araudiak xedatzen duenez.*
- *Ezartzea ezen banku-kontuak mankomunatuki izenpetu behar dituztela alkateak eta kontu-hartzailak, ordainketa-prozesua izapidetzeko.*
- *Udaleko kontu-hartzailetak barne-kontrolako eta barne-fiskalizazioko eginkizunak bete behar ditu, bai eta banku-kontuen maneiu eta zaintzari dagozkienak ere, zuzenbidearen arabera.*
- *Plantilla organikoan ordainsari guztiak jasotzea, aplikatzekoa den araudiari jarraituz.*
- *Barne-kontrolako mekanismo egokiak ezartzea, enplegatu publikoen nominak behar bezala ordaintzen direla bermatze aldera.*
- *Diru-sarreraren borondatezko ordainketarako aldia bukatu osteko premiamendu-probidentziak izapidetzea aplikatzekoa den araudiari jarraituz, zor-preskripzioaren arriskua ekiditeko.*
- *Bere ibilgetua osatzen duten ondasun guztien inbentarioa egitea, halako moldez non horren balioa une oro eguneratuta mantenduko baita eta egoera-balantzean modua egonen baita ibilgetuaren saldoaren arrazoizkotasuna frogatzeko.*

Horrez gain, esan beharrekoa da ezen, finantza-fiskalizazioaren emaitza gisa, beste gomendio batzuk jaso direla 5. eranskinean, non jasota baitaude txosten honekin batera ematen diren beste ohar eta aurkikuntza batzuk.

Miguel Ángel Aurrecochea Gutiérrez auditorea arduratu da lan honetaz, eta hark proposatuta eman da txosten hau, indarrean dagoen araudiak aurreikusitako izapideak bete ondoren.

(Ignacio Cabeza del Salvador Nafarroako Kontuen Ganberako lehendakariak digitalki sinatua
alboan ageri den egunean)

1. ERANSKINA. IRURTZUNGO UDALAREN 2021EKO EKITALDIKO KONTU OROKORRAREN LABURPENA**2021EKO EKITALDIKO AURREKONTUAREN LIKIDAZIOAREN EGOERA-ORRIA****Gastu-aurrekontuaren betetzea Sailkapen ekonomikoa**

Gastuak	Hasierako aurreikuspena	Aldaketak	Behin betiko kredituak	Aitortutako betebeharrak	Betetakoa (%)	Ordainketa	Ordainketa-ren %
Langileria-gastuak	1.048.322	2.597	1.050.919	1.079.659	103	1.075.672	100
Ondasun arruntetako eta zerbitzuetako gastuak	539.841	0	539.841	482.448	89	420.501	87
Transferentziak arruntak	311.514	3.010	314.524	308.483	98	257.440	83
Inbertsio errealak	82.600	320.132	402.732	400.822	100	393.468	98
Transferentziak KAPITALA	7.300	0	7.300	7.300	100	7.300	100
Guztira	1.989.577	325.739	2.315.316	2.278.712	98	2.154.381	95

Diru-sarreraren aurrekontua betetzea. Sailkapen ekonomikoa

Diru-sarrerak	Hasierako aurreikuspena	Aldaketak	Behin betiko aurreikuspena	Aitortutako eskubideak	Betetakoa (%)	Kobranta (%)	Kobranta (%)
Zuzeneko zergak	552.429	0	552.429	612.546	111	517.153	84
Zeharkako zergak	65.000	0	65.000	116.120	179	101.267	87
Tasak, prezio publikoak eta bestelako diru-sarrerak	284.000	0	284.000	262.813	93	253.355	96
Transferentziak arruntak	1.065.716	0	1.065.716	1.148.059	108	1.100.761	96
Ondarearen bidetako diru-sarrerak eta herri-lurren aprobetxamendua	15.233	0	15.233	15.064	99	12.501	83
Inbertsioak beste-entzera	7.199	0	7.199	7.099	99	7.099	100
Transferentziak KAPITALA	0	140.786	140.786	140.786	100	55.626	40
Finantza-aktiboak	0	184.953	184.953	0	0	0	0
Guztira	1.989.577	325.739	2.315.316	2.302.487	99	2.047.762	89

EKONOMIA- ETA ONDARE-EGOERAREN ESPEDIENTEA

2021eko abenduaren 31ko balantzea

Aktiboa

Deskribapena	2020	2021
A Ibilgetua	12.452.905	12.846.629
1 Ibilgetu materiala	6.767.691	7.002.526
2 Eskubide errealak	68.235	68.235
3 Erabilera orokorrerako azpiegitura eta ondasunak	5.616.722	5.775.611
5 Ibilgetu finantzarioa	257	257
C Zirkulatuzailea	1.022.196	891.074
8 Zordunak	391.450	471.570
9 Kontu finantzarioak	630.746	419.504
Aktiboa, guztira	13.475.101	13.737.703

Pasiboa

Deskribapena	2020	2021
A Funts berekiak	13.218.023	13.558.118
1 Ondarea eta erreserbak	13.004.005	13.359.684
2 Ekitaldiko emaitza ekonomikoa (etekina)	214.018	198.434
D Epe laburreko hartzekodunak	257.078	179.585
6 Aitortutako betebeharreratiko hartzekodunak	157.384	124.332
8 Itxitako aurrekontuetako hartzekodunak eta aurrekontuz kanpokoak	99.694	55.253
Pasiboa, guztira	13.475.101	13.737.703

EMAITZA EKONOMIKOA

Ekitaldiko emaitza arruntak

Zor	2020	2021	Hartzeko	2020	2021
Deskribapena			Deskribapena		
61 Langileria-gastuak	959.255	1.079.659	70 Salmentak	217.391,84	262.813
62 Gastu finantzarioak	0	0	71 Jabetza- eta enpresa-errenta	11.555,48	15.064
63 Zergak	0	0	72 Produkzioari eta inportazioari lotu- tako tributuak	380.353,30	428.591
64 Lanak, hornidurak eta kanpo zerbitzuak	413.316	482.448	73 Errentaren eta ondarearen gaineko zerga arruntak	156.024,13	165.536
65 Gizarte-prestazioak	0	0	75 Ustiapenerako dirulaguntzak		0
66 Ustiapenerako dirulaguntzak	0	0	76 Transferentzia arruntak	1.045.828,77	1.148.059
67 Transferentzia arruntak	245.213	308.483	77 Kapitalaren gaineko zergak	32.983,90	134.540
68 Kapital-transferentziak	7.300	7.300	78 Beste diru-sarrera batzuk		0
69 Amortizatorako eta hornidure- tarako zuzkidurak	0	0	79 Beren helburura aplikaturiko hornidu- rak		0
800 Ekitaldiko emaitza arrunta (saldo hartzekoduna)	219.053	276.711	800 Ekitaldiko emaitza arrunta (saldo zor- duna)		0
	1.844.137	2.154.601	Guztira	1.844.137	2.154.601

Ekitaldiko emaitzak

Deskribapena	2020	2021	Deskribapena	2020	2021
80 Ekitaldiko emaitza arruntak (saldo zorduna)	0	0	8 Ekitaldiko emaitza arruntak (saldo 0 hartzekoduna)	219.053	276.711
82 Ohiz kanpoko emaitzak (Saldo zorduna)	0	0	8 Ohiz kanpoko emaitzak 2 (Saldo hartzekoduna)	0	0
84 Itxitako aurrekontuetako eskubide eta betebeharren aldaketa (saldo zorduna)	5.917	78.524	8 Itxitako aurrekontuetako eskubide eta 4 betebeharren aldaketa (Saldo hartzekoduna)	882	247
89 Mozkin garbia, guztira (Saldo hartzekoduna)	214.018	198.434	8 Mozkin garbia, guztira 9 (Saldo zorduna)	0	-
Guztira	219.935	276.958	Guztira	219.935	276.958

AURREKONTU-EMAITZA

Kontzeptua	2020	2021
+ Aitortutako eskubide garbiak	2.025.932	2.302.487
- Aitortutako betebeharrak garbiak	1.811.407	2.278.713
Aurrekontu-emaiza	214.525	23.774
Doikuntzak		
- Finantzaketaren desbideratze positiboak	124.945	1.463
+ Finantzaketaren desbideratze negatiboak	0	124.945
Diruzaintzako gerakinarekin finantzatutako gastuak	16.527	48.624
Aurrekontu-emaiza doituak	106.107	195.880

DIRUZAINZAKO GERAKINA

Kontzeptua	2020	2021
(+) Kobratzeko dauden eskubideak	178.101	274.396
(+) Diru-sarreraren aurrekontua: aurtengo ekitaldia	153.635	254.726
(+) Diru-sarreraren aurrekontua: itxitako ekitaldiak	229.016	209.286
(+) Aurrekontuz kanpoko diru-sarrerak	8.799	7.559
(-) Bilketa zaileko eskubideak	213.349	197.175
(-) Aplikatzeke dauden diru-sarrerak	0	0
(-) Ordaintzeko dauden betebeharrak	257.080	179.585
(-) Gastu-aurrekontua: aurtengo ekitaldia	157.384	124.332
(-) Gastu-aurrekontua: itxitako ekitaldiak	0	0
(+) Aurrekontuz kanpoko gastuak	99.696	55.253
(+) Diruzaintzako funts likidoak	630.746	419.504
(+) Finantzaketa-desbideratze metatu negatiboak	0	0
Diruzaintzako gerakina, guztira	551.767	514.315
Diruzaintza-gerakina, finantzaketa atxikiko gastuengatikoa	124.945	0
Diruzaintza-gerakina, baliabide atxikietarakoa	0	0
Gastu orokorretarako diruzaintza-gerakina	426.822	514.315

2. ERANSKINA. IRURTZUNGO UDALA

Irurtzungo Udala Iruñeko merindadeko udalerrri bat da, Arakilen kokatua. 3,5 km²-ko azalera du, eta 2.296 biztanle zeuzkan 2021eko urtarrilaren 1ean.

Udalak ez dauka erakunde autonomorik, merkataritza-sozietaterik, edo zerbitzu publikoen kudeaketa-rako bestelako enterik.

Udal-antolamendua besteak beste Osoko Bilkurak eta Alkatetzak osatzen dute.

Udalak honako administrazio-egitura zeukan 2021ean:

Administrazioa	Musika eskola	Gaztetxoko	Kultura	Hezkuntza	Obrak eta zerbitzuak
Idazkari 1	Eskola-zuzendari 1	2 monitore	Kultur koordinatzaile 1	Atezain 1	Zerbitzu anitzetako 3 ofizial
Kontu-hartzaile 1	10 musika-irakasle				Instalazio/eraikinen garbiketaren arduradun 1
2 administrari-ofizial					8 garbitzaile
Administrari laguntzaile 1					

2021eko ekitaldia ixtean, honako hauek ziren Udalaren datu ekonomiko nagusiak eta langileria-arlokoak:

Eskubide aitortuak	Betebehar aitortuak	Langileak, 2021-12-31n
2.302.487	2.278.713	30

Honako hauek dira Udalak ematen dituen zerbitzu publikoak eta haiek kudeatzeko modua:

Zerbitzua	Zuzeneko kudeaketa	Zeharkako kudeaketa	Mankomunitatea	Partzuergoa
	Udala	Zerbitzu-kontratua		
Argiteria publikoa			X	
Hilerria			X	
Hondakin-bilketa				X
Kale-garbiketa		X		
Edateko uraren etxeetako hornidura				X
Estolderia				X
Populazio-guneetarako sarbidea			X	
Hirigintza		X		X
Kulturaren sustapena eta kultur ekipamenduak		X		
Ikastetxe publikoak mantentzea		X		
Berdintasunaren sustapena				X
Merkataritza ibiltaria		X		
Kirol-jardueraren sustapena				X
Turismo-jardueraren sustapena				X
Gizarte zerbitzuak				X

Udala, halaber, honako mankomunitate hauen kide da:

a) Sakanako Mankomunitatearena, uraren goi- nahiz behe-hornidurarako, hiri-hondakinen bilketa eta tratamendurako, immigraziorako, kirolerako eta Etxebizitzak Birgaitzeko Bulegorako.

b) Irurtzango oinarrizko eskualdeko Gizarte Zerbitzuen Mankomunitatearena, harrera- eta orientazio-programetarako, gizarteratze-programetarako, familiei, haurrei eta gazteei arreta emateko programetarako, eta autonomia pertsonala sustatu eta mendekotasun-egoeran dauden pertsonen arreta emateko programetarako.

Zerbitzu mankomunatu horiek guztiek 163.324 euroko gastua ekarri diote Udalari.

Halaber parte hartzen du Plazaola Turismo Partzuergoan, zeina eratu baitzen eskualdearen turismo-garapena xede harturik, eta 19.217 euroko gastua ekarri dio.

3. ERANSKINA. ARAU-ESPARRUA

Funtsean honako arau hauek osatzen dute udalari 2021ean aplikatzekoa zaion arau-esparrua:

- 7/1985 Legea, apirilaren 2koa, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituena.
- 38/2003 Lege Orokorra, azaroaren 17koa, Dirulaguntzei buruzkoa.
- 3/2004 Legea, abenduaren 29koa, neurriak ezartzen dituena merkataritza-eragiketetako berankortasunaren aurka.
- 2/2012 Lege Organikoa, apirilaren 27koa, Aurrekontu-egonkortasunari eta Finantza-jasangarritasunari buruzkoa, eta hori garatzeko araudia.
- 39/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Administrazio Publikoen Administrazio-prozedura Erkideari buruzkoa.
- 40/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoari buruzkoa.
- 2/2015 Legegintzako Errege-dekretua, urriaren 23koa, Langileen Estatutuaren Legearen testu bategina onesten duena.
- 11/2020 Legea, abenduaren 30ekoa, Estatuko 2021erako Aurrekontu Orokorrei buruzkoa (sektore publikoaren zerbitzura diharduten langileen gastuen arloan aplikatu beharreko xedapenak).
- 6/1990 Foru Legea, uztailaren 2koa, Nafarroako Toki Administrazioari buruzkoa.
- 251/1993 Legegintzako Foru Dekretua, abuztuaren 30ekoa, Nafarroako Administrazio Publikoen Zerbitzuko Langileen Estatutuaren testu bategina onesten duena.
- 2/1995 Foru Legea, martxoaren 10ekoa, Nafarroako Toki Ogasunei buruzkoa.
- 1/2017 Legegintzako Foru Dekretua, uztailaren 26koa, Lurraldearen Antolamenduari eta Hirigintzari buruzko Foru Legearen testu bategina onesten duena.
- 2/2018 Foru Legea, apirilaren 13koa, Kontratu Publikoei buruzkoa.
- 23/2018 Foru Legea, azaroaren 19koa, Nafarroako Polizieari buruzkoa.
- 6/2020 Foru Legea eta 7/2020 Foru Legea, apirilaren 6koak, presako neurriak onesten dituztenak COVID-19ak eragindako inpaktuari aurre egiteko.
- Kontabilitatearen eta aurrekontuen arloan, araubide juridikoa ezartzen dutenak honako hauek dira: 270. eta 273. foru dekretuak, 1998ko irailaren 21ekoak, zeinak Nafarroako Toki Administrazioarako aurrekontu eta gastu publikoari eta kontabilitateari buruzkoak baitira, eta irailaren 23ko 234/2015 Foru Dekretua, Nafarroako toki entitateen aurrekontu-egitura onesten duena.
- Udalaren 2021eko aurrekontuaren exekuzio-oinarriak eta udalaren gainerako barne arauak.

4. ERANSKINA. SALBUESPENEI BURUZKO INFORMAZIO GEHIGARRIA

Jarraian, informazio xehakatuagoa eskaintzen da, txosten honen "Iritzi-errefusaren oinarria" deritzon IV. atalean zehazten diren salbuespenei buruzkoa.

4.1 BARNE-KONTROLA

- Edozein entitatearen barne-kontrolak erantzuten dio arduradunek taxutu, inplementatu eta mantendutako sistema bati, xede duena entitateak zenbait alorretan dituen helburuen lorpenari buruzko ziurtasun egoki bat ahalbidetzea: finantza-informazioaren fidagarritasunari, eragiketen eraginkortasun eta efizientziari eta aplikatzekoak diren lege- nahiz erregelamendu-xedapenen betetzeari dagokienez.

Funtzio-zedarritze edo -bereizketa antolakunde baten barne-kontrolako printzipio oinarrizkoa da. Gure fiskalizazioan, ikusi dugu ez dagoela behar bezalako funtzio-bereizketarik, sumatu ditugun arriskuak kendu edo minimizatzeko modukorik, langile bakar batengan funtzio-kontzentrazio mardula gertatzen baita.

- Nahiz eta barne-kontrolaren kontzeptuak antolakunde osoari eragiten dion eta horren taxuketaren erantzukizuna udalarena berarena izan, esan behar dugu ezen, kudeaketa ekonomikoari dagokionez, hala uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legeak, Nafarroako Toki Administrazioari buruzkoak, nola martxoaren 10eko 2/1995 Foru Legeak, Nafarroako Toki Ogasunei buruzkoak, kontu-hartzaitzako zereginak betetzen dituenari egozten diotela barne-kontrol eta -fiskalizazioko funtzioa. Udalean, kontu-hartzaileak –lehenago aipaturiko araudiari jarraikiz–, aipatu diren funtzioez gain, diruzaintzako arduradunaren funtzioak betetzen ditu, eta halaxe agertzen da plantilla organikoetan.

Eginiko berrikuspenean, akats oso muntadunak aurkitu dira udaleko kontu-hartzaitzak egingutako barne-kontrolan, agerian uzten dutenak arrisku garrantzitsuak daudela, bai gastuen alorrekoak bai diru-sarrereneakoak, eginiko eragiketetan, zeinak 5. eranskinean xehatzen baitira. Zehazki:

- Funts-mugimenduak, kontu-hartzaitzak bi banku-kontutan baimenik gabe egindakoak.
- Lan-osagarrien okerreko ordainketa, lege-oinarririk gabekoa.
- Aurrekontuko gastuen egoera-orriko kredituen mugatze-printzipio loteslea ez errespetatzea.
- Zorrak ordainarazpen-bidera igaroarazteko berandutza nabarmena, halatan zor-preskripzioaren arriskua pizturik.

Dena den, nabarmentzekoak dira geroagoko jakingarri hauek:

- Gure fiskalizazioaren bidez kontrol egokirik eza eta zenbait arrisku muntadun detektatzean, horien berri eman zitzaion udalari. Egoera horren aurrean, honako neurri hauek hartu dira:

- a) Alkatetzaren ebazpen bat onetsi zuen 2023ko urtarrilaren 10ean, zeinaren bidez espedientea irekitzen baita aipatu gertakariak argitzeko.
- b) Udalbatzak erabaki bat onetsi zuen 2023ko martxoaren 7an, zeinaren bidez erabaki baitzuen azken urteotako nominen berrikuspena onestea, osagarrien aferan egon litezkeen desdokituntzak erregularizatzeko, bai ta 2023ko plantilla organikoaren aldaketa ere, barne harturik garbitzaileen lanpostuetako osagarriak eta gainerako enplegatu publikoen gaidikina kenduz.
- c) Alkateak salaketa bat helarazi zion 2023ko martxoaren 7an agintari eskudunari, banku-kontuetako funts-mugimendu baimengabeei buruz egoki diren ikerketei ekiteko.

4.2. DIRUZAINNTZA.

Udala, banatze-kontuaz gain, titular gisa agertzen da bost finantza-entitateetako sei banku-kontutan. Lehenago adierazi bezala, diruzaintza-eginkizunak udaleko kontu-hartzaileari esleituta daude.

Nahiz eta banku-eragiketei buruz egin dugun jarraipenak emaitza egokia izan duen, ikusi dugu finantza-kontu guztietan kontu-hartzailea agertzen dela sinatze-baimena duen langile bakar gisa,

salbu eta horietako batean, non alkatearekin batera bereizgabeki agertzen baita sinatze-baimendun gisa. Ez da agertzen alkateak inolako pagamendu-egiterik baimendu duenik aipatu bankukontuaren kargura eginiko eragiketetan.

Egoera horrek agerian utzi du udalaren barne-kontrollean ahulezia garrantzitsu bat dagoela, eta hori berretsi egin da, gure auditoretzan aurkitu baita ezen kontu-hartzaileak bere izenean eta zenbait ekitalditan zehar errepikatuki egin izan dituela funts-mugimenduak, horretarako baimenik eduki gabe.

Hori horrela, diruzaintza-alorreko jardunaren norainokoa areagotzea erabaki zen, eta udalari dokumentu gehiago eskatzea. Gure berrikuspenean oinarriturik, honakoa nabarmentzen dugu:

- Ageri da alkateak 2017ko irailean emandako esanbidezko baimen bat, zeinaren bidez 2.000 euroko nomina-aurrerakina onartu baitzitzaion kontu-hartzaileari. Gero batean, kontzeptu beragatik erretiratu ziren 1.500 euro 2017ko urrian eta 1.700 euro 2019ko urrian, haien azalpen gisa kontabilitatean aurrerakin-berritzea aipatuz; baina alkateak horretarako emandako esanbidezko baimenik ez da agertzen.

Nahiz eta kontu-hartzaileak berak kopuru horiek nomina-konpentsazio bitartez itzuli egin dituen, azpimarratzen dugu lan-aholkularitzak ez duela nominarik egin zeinetan aurrerakinaren kitapenerako konpentsazioak agertzen diren. Kontu-hartzailea bera da bere konpentsazioak egiten doana, nomina-kobrantsa txikiagoak jasoz. Gero, kasuko diruzaintza- eta kontabilitate-doikuntzak egiten ditu. Horrek esan nahi du prozedura hori udalak berak detektatua ez izateaz gain lan-aholkularitzak ere ez duela horren berri, haren nominak beti osotasunezkoak direlako.

- Gainera, eta aipaturikoez harago, banku-mugimenduetan detektatu da kontu-hartzaileak funts-erretiratze errepikatuak eta geroago zenbait ekitalditan zehar itzulketak egin dituela, alkateak horretarako emandako baimen esanbidezkorik agertzen ez dela.

Gure aburuz, jardun irregular horrek erakusten du:

- a) Diruzaintza-alorrean ahulezia esanguratsua dagoela, ordain-prozesuaren fase guztien gaineko kontrol erabatekoa langile bakar baten eskuetan uztearen ondoriozkoa.
- b) Udalaren funtsen xedatze ezegokia egin dela, bat ez datorrena Nafarroako Toki Administrazioari buruzko Foru Legearen 241. artikulua diruzainari funts publikoen maneiu eta zainketaren arduradun gisa esleitzen dizkion eginkizunekin.
- c) Ordainketa baimengabeak agindu direla, eskumen hori soil-soilik udaleko alkateari baitagokio.

Lehen aipatu erantzukizun-argiketako espedientea hasi izanaren ondorioz, udalak aldatu egin du banku-kontu guztien sinadura-araubidea.

Nolanahi dela ere, eta jardun hori noizdanikoa den zehaztu ezin izan dugun neurrian –egiaztatu dugu ezen, gutxienez ere, 2015eko ekitaldirainokoa dela–, halaber ezinezkoa izan zaigu zedarritzea, ebaluatzea eta kuantifikatzea ez udalaren aldeko zorrik ba ote dagoen.

4.3 LANPOSTU-OSAGARRIAK

- Nomina-lagin baten gainean egindako berrikuspenean agerian geratu da badaudela aldeak udal-langile jakin batzuei ordaindutako lanpostu-osagarrien eta 2021eko ekitaldirako onetsitako plantilla organikoan ageri direnen artean. Aipatu osagarrien ordaintze ezegokia guztira 13 lanpostutan gertatu da. Horiek plantillaren ehuneko 41 egiten dute. Hamahiru lanpostu horietatik:

- a) Lau langilek lanpostuko osagarri bat jaso dute, 2021eko ekitaldiko plantilla organikoan agertzen ez dena (dela txikia delako, dela ez delako ezein osagarri agertzen), eta eginiko ordainketak baliozkotu edo justifikatuko dituen ezein esanbidezko egintzatan oinarriturik ez duena.

Aipatu behar dugu bi langileri eginiko ordainketa ezegokiak 2014ko ekitaldian hasi zirela, eta ez da ageri kontu-hartzaileak idatzizko ezein ohartarazpen egin izana non adierazten baitzen nominekin jasotako ordain-osagarri batzuk ez zetozeela bat plantilla organikoekin.

- b) Bederatzi garbitzaile-lanpostuk 2021ean lanpostuko osagarri bat jaso dute, ehuneko 17,35etik ehuneko 22,80ra bitartekoa, ez dagoena plantilla organikoan jasota. Garbitzaile horiei buruz, honako dokumentazio hau zehazten da:
- 2012ko uztailaren 3an, Udalbatzaren erabaki bidez, onetsi zen zazpi garbitzaile udaleko langile gisa subrogatzea, garbiketa-zerbitzuen esleipen-hartzaile zen aurreko enpresan zeuzkaten ¹lan- eta ordainsari-baldintza beretan.
 - Udaleko idazkariaren txostena, 2013ko urriaren 25ekoa, eginiko subrogazioaren araubide juridikoari eta baldintzei buruzkoa, Toki Administrazioiko zuzendaritzari igorria, informatze-arren ea beharrezkoa den 2014ko plantilla organikoan lanpostuko osagarri bat jasotzea, lan-subrogazioaren ondorioz ordainsari-araubidea parekatze aldera. Txosten horretan adierazten denez, udalak ordainsari-parekatzea justifikatu eta baloratu behar du, plantilla organikoetan identifikatzeko, eta onetsiko den osagarria "xurgagarria eta ez-kontsolidagarria izanen da, halako moduz non etorkizuneko soldata-igoerak osagarri horietatik kenduko bailirateke". Ez da ageri inolako dokumenturik, ordainsariak parekatzeko balorazio ekonomikoa justifikatzen duenik.
 - 2013ko azaroaren 5ean Udalbatzak beste erabaki bat onetsi zuen. Deliberatu zuen ezen kolektibo horri 2014ko urtarrilaren 1etik aurrera aplikatu beharreko hitzarmena Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioiko langile lan-kontratudunei dagokien bera dela².
 - Kontu-hartzaileak³ eginiko 2023ko otsailaren 14ko txostenean adierazten denez, Kontu-hartzailetatik ez zen ezein balorazio ekonomiko egin ordainsari-parekatzeari buruz. Era berean, 2014az geroztik ez da inolako egiaztapenik egin nominako osagarrien eta plantilla organikoen arteko egokitzapenez. Horri buruz, esan behar dugu ezein plantilla organikok ez duela lanpostuko inolako osagarririk jaso.
 - Egia bada ere subrogazioak zazpi lanposturi eragin ziela, udalak zuzenean kontratatuak izanik beste bi garbitzaile-lanpostuak bete zituzten langileei ordainsaria langile subrogatuen baldintza beretan eman zitzaien. Bi postu horietako lanpostu-osagarria ere ez zen ezein ekitalditako plantilla organikoetan adierazi.

Horregatik guztiagatik, eta frogagiririk ezean, ezin jakin dugu ea ordainsari-parekatzea ondo egin ote zen. Beraz, ez daukagu behar besteko eta bezalako ebidentziarik, ondorioztatzeko modukorik ea aipatu udal-erabakien edukiaren araberakoak ote diren Foru Komunitateko Administrazioaren zerbitzura diharduten langileek lan-hitzarmenari atxiki zitzaizkionetik jasotako lanpostu-osagarriak, horien bilakaera eta efektuak. Hori horrela, ezinezkoa zaigu baloratzea langileria-gastuen parte handi batek zer efektu izan dezakeen fiskalizatutako ekitaldiko egoera-orri finantzarioen multzoan.

Gure berrikuspenean, egoera horrek muga bat ezarri dio norainokoari, eta salbuespen gisa jotzen da, gure txostenaren IV. atalean jaso dugun bezala.

¹ Nafarroako eraikin- eta lokal-garbiketaren sektoreko hitzarmen kolektiboa.

² Nafarroako Gobernuaren 2007ko urtarrilaren 15eko erabakia, zeinaren bidez onesten baita Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioak sinaturiko Lan-kontratudun Langileen Hitzarmen Kolektiboa.

³ Udaleko alkatearen eskariz eginiko txostena.

5. ERANSKINA. FISKALIZAZIO FINANTZARIKO BESTE OHAR ETA AURKIKUNTZA BATZUK

Ondoren ohar, iruzkin eta informazio gehigarri batzuk jaso ditugu, Ganbera honen ustez fiskalizazio-txosten honen hartzaile eta erabiltzaileentzat interesgarri gerta daitezkeenak.

Orobat gehitu ditugu Ganbera honen ustez Udalaren kudeaketa ekonomiko-administratiboa hobetzeko beharrezkoak diren gomendioak.

5.1 2021EKO AURREKONTU OROKORRA

Alderdi orokorrei buruz egindako berrikuspenetik, honako hau adierazi nahi dugu:

- Udalaren 2021erako aurrekontua udalbatzak onetsi zuen, 2020ko abenduaren 22an. 2021eko otsailaren 9an sartu zen indarrean, behin betiko aurrekontua 2021eko otsailaren 8ko NAO-n argitaratu ondoren.

- 2021erako aurrekontuaren likidazioa Alkatetzaren 2022ko irailaren 20ko Ebazpenaren bidez onetsi zen, eta kontu orokorra Udalbatzak onetsi zuen, 2022ko urriaren 25ean. Hori dela eta, azpimarratzen dugu aurrekontuaren likidazioa ekitaldi bakoitzeko martxoaren 31 baino lehen onetsi behar dela, eta kontu orokorra, berriz, irailaren 1a baino lehen.

- Toki Administrazioaren eta Despopulazioaren Zuzendaritza Nagusiari, lege ezarritako epeak igarota bidali zaizkio bai aurrekontua bai aurrekontu-likidazio eta kontu orokorra.

- 2021eko ekitaldian hamar aurrekontu-aldaketa onetsi ziren, 325.740 eurokoak guztira. Lau aurrekontu-aldaketaz osaturiko lagin bat berrikusi dugu, eta ikusi dugu ezen, lau aldaketetatik hirutan, udalbatzak aldaketa onetsi zuela gastu-exekuzioaren ondorengo data batean.

- Gastu-exekuzioak ez ditu errespetatu aurrekontu-betetzearen oinarrietan kredituetarako ezarrita dauden lotura juridikoko 19 maila-poltsetako zazpitan jarritako mugak. Halaber, langile-gastuen kapituluaren exekuzioa handiagoa izan da baimendutako gehieneko kreditua baino. Bi kasu horietatik ezeinetan ez da ageri kontu-hartzailetzak eragozpenik adierazi izana.

Horregatik guztiagatik, ondokoa gomendatzen dugu:

- *Aurrekontua, likidazioa eta kontu orokorra lege ezarritako epeetan onestea.*
- *Aldez aurretik ziurtatzea eduki ekonomikoko zernahi jarduketak behar bezalako eta behar besteko kreditua baduela aurrekontuari egokiro egotzia izateko, horrela ekidite aldera gastu-exekuzioaren ostean aurrekontu-aldaketak onestea.*
- *Beharrezkoak diren aurrekontu-aldaketa guztiak onets daitezela, halako moldez non lotura juridikoko ezein poltsak ez eta gehieneko kredituek ere ez baitute agertuko aurrekontu-muga aurreikusiez goragoko exekuziorik.*
- *Kontu-hartzailetzak idatziz ohartaraz dezan, etete-ondoriodun eragozpen egokiak jaulkiz, bidegabea dela behar adinako krediturik egon gabe aurrekontuari gastuak egozte.*
- *Legez ezarritako epeak bete daitezzen aurrekontua, likidazioa eta kontu orokorra Toki Administrazioaren eta Despopulazioaren Zuzendaritza Nagusira igortzeari dagokionez.*

5.2 AURREKONTU-EGONKORTASUNAREN ETA FINANTZA-IRAUNKORTASUNAREN PRIN-TZIOIAK.

Aurrekontu Egonkortasunari eta Finantza Iraunkortasunari buruzko apirilaren 27ko 2/2012 Lege Organikoa aplikatzearen eraginetarako, Kontabilitate Nazionaleko SEC 2010 irizpideei jarraituta, toki administrazio publikotzat jotzen da Irurtzango Udala.

COVID-19ak eragindako osasun-, gizarte- eta ekonomia-krisiaren ondoren, Europako Batzordeak eta Europako Kontseiluak Egonkortasun eta Hazkunderako Itunaren babes-klausula aktibatzea onartu zuten 2020ko martxoan. Aktibazio horri esker, Europar Batasuneko estatu kideek atzeratu eta eten egin dezakete krisiaren aurretik finkatutako bateratze fiskalaren bidea.

Erabaki horren ondorioz, Kongresuaren Osoko Bilkurak 2020-2021 aldirako egonkortasunari, zor publikoari eta gastu-arauari buruzko hiru zerga-arauen aplikazioa etetea erabaki zuen 2020ko urrian, eta etenaldi hori 2023ra arte luzatu da.

Hala ere, zorpetze eragiketak baimentzeko prozedurari eutsi zaio, bai eta merkataritza-zorra jasagarria izateko ezarritako betebeharreri ere. Bi gai horiei dagokienez, 2021eko ekitaldian:

- Jadanik 5.4 apartatuan adierazitakoaren arabera, ⁴egiazko zor bizia 63.187 eurokoa zen 2021eko abenduaren 31n. Zenbateko horrek diru-sarrera arruntan ehuneko hiru egiten du; hots, portzentaje askoz txikiagoa lege eskatzen den ehuneko 110eko muga baino.

- Kontabilitate-aplikazio informaziotik eskuraturiko hiruhileroko ordainketa-epe batez bestekoak 30 egun baino gehiagokoak dira 2021eko lau hiruhilekoetatik hirutan. Halaber, 30 egun baino gehiagokoa da 2021eko batez besteko ordainketa-epe urtealditarra, honako koadro honetan ikus daitekeenez:

Hornitzaileei ordaintzeko batez besteko epea	
Lehenengo hiruhilekoa	38,33
Bigarren hiruhilekoa	54,80
Hirugarren hiruhilekoa	51,15
Laugarren hiruhilekoa	19,43
Urtealdia	41,28

Udalak ez ditu bidaltzen Ogasun Ministeriora, argitaratuak izateko, hornitzaileei ordaintzeko batez besteko hiruhileroko epeak.

Horregatik guztiagatik, gomendatzen da araudiak ezartzen dituen ordainketa-epeak bete daitezzen, horretarako hartuz aurrekontu-egonkortasunari buruzko araudian aurreikusten diren zuzentze-neurriak, halako moldez non bermatuko baita jasagarritasun finantzarioaren printzipioa bete egiten dela. Orobat gomendatzen da Ogasun Ministerioari bidaltzea hornitzaileei ordaintzeko hiruhileroko batez besteko epeak, argitaratuak izan daitezen.

5.3 LANGILERIA-GASTUAK

Langileei dagozkien gastuek 1,1 milioi egin zuten, aurreikusitako aurrekontu-kredituen ehuneko 103, alegia; halatan, kredituen lotura juridikoko mailak gainditu zituzten. Kontu-hartzaileak ez du eragozpenik adierazi, eta nomina-ordainketarako behar besteko kreditua gaitzeko aurrekontu-alaketarik ere ez da aurretiaz izapidetu.

Langileria-gastu horiek ekitaldian sorturiko gastu guztien ehuneko 47 egiten dute, eta aurreko ekitaldian baino ehuneko 13 gehiago egin dute; gehienbat, 2021ean izandako kontratazio-bolumen handiagoaren ondorioz. Parterik handiengan, enplegu sozial babestukoa, kale-garbiketako, lore-zaintzako, igeltserotzako eta bestelako lanak egiteko.

Hona aurreko ekitaldikoekiko alderaketa:

	Betebehar aitortuak		Aldea (%)
	2020	2021	
Goi karguak	31.563	31.858	1
Funtzionarioak	209.391	173.089	-17
Administrazio-kontratua duten langileak	98.403	115.690	18
Lan kontratudun finkoak	234.046	228.709	-2
Aldi baterako lan-kontratudunak	168.489	252.192	50
Kuotak, prestazioak eta zama sozialak	217.363	278.121	28
I. kapitulua, guztira	959.255	1.079.659	13

⁴ Kontabilizatu gabeko eragiketa, gure fiskalizazioak errentamendu operatiboko eragiketa gisa detektatua, finantza-errentamendu gisa kontabilizatua izan ordez. Salbuespen gisa jaso da gure txostenaren IV. atalean.

Plantilla organikoa

2021eko ekitaldiko behin betiko plantilla organikoa 2021eko otsailaren 22ko 40. NAO n argitaratu zen.

Plantillako lanpostuak eta horien egoera, 2021eko ekitaldiaren itxiera-unean, hauexek dira:

Langileak	Udala
Plantillako lanpostuak	32
Beteta	15
Hutsik	17
Lanpostu hutsak lanpostu guztien gainean (%)	53
Bete diren lanpostu hutsak	16
Bete diren lanpostu hutsak (%)	94
Bete gabeko lanpostu hutsak	1
Bete gabeko lanpostu hutsak (%)	6
Aldi baterako kontratazioa (%)	53

2021eko abenduaren 31n, udalean langile hauek ziharduten, plantilla organikoarekin batera doan langileria-zerrenda izenduneko dokumentuaren arabera:

Langile-araubidea	2021-12-31n
Funtzionarioak	5
Administrazio-kontratua	2
Lan-kontratudun finkoa	12
Lan-kontratu mugagabea duten langileak	2
Aldi baterako lan-kontratuduna	9
Guztira	30

Horrez gain, abenduaren 31n kontratatuta agertzen ziren enplegu sozial babestuko programei uztarturiko bederatzir enplegatua, zeinentzat kasuko dirulaguntza jaso baitzuen Udalak Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioarengandik.

Egin den azterketatik honako alderdi hauek azpimarratu behar ditugu:

- Plantilla organikoan, "Araubide juridikoa" goiburuean, garbitzaileen kolektiboa langile lan-kontratudun finko gisa oker kalifikatuta agertzen da, lan-kontratu mugagabedun ez-finko gisa agertu beharko lukeenean. Halaber, bi langileri aplikatu beharrekotzat agertzen da, oker agertu ere, "hitzarmen bereki" bat, noiz eta aplikatzen zaiena Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioak sinaturiko lan-kontratudun langileen hitzarmen kolektiboa denean, Udalbatzak 2013ko azaroaren 5ean onetsi zuen bezala.

- Udalean, aldibaterakotasuna, 2021eko abenduaren 31n, ehuneko 53koa da, eta 16 lanpostu ukitzen ditu.

Aldibaterakotasun horri dagokionez, eta erantzutearren abenduaren 28ko 20/2021 Legeak, enplegu publikoan aldibaterakotasuna murrizteko presako neurriei buruzkoak, ezartzen duenari, Udalak bi lan-eskaintza publiko onetsi ditu 2022an, guztira 14 lanpostutarako, eta horietatik 17 agertzen dira lanpostu huts gisa plantilla organikoan. Horri buruz, esan behar dugu ezen, deituak izan ez diren hiru lanpostu hutsetatik bi betetzea (Kontu-hartzaitzako eta Idazkaritzako postuak) Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioari dagokiola; hortaz, lanpostu bat baizik ez litzateke egonen deialdian noiz jasoko zain eta, horrela, neurri handian beteko lirateke aipatu legean aurreikusitako helburuak.

- Udaleko musika-eskolako langileen lan-baldintzak arautzen dituen hitzarmen kolektiboa 2011ko ekitaldian mugaeguneratu zen, eta gaur arte ez da hitzarmen berririk onetsi.

- Udalak ez dauka langile bakoitzari buruzko espediente banakaturik, non jasota egonen baitira haren egoera pertsonal eta administrazioari buruzko dokumentu guztiak, nominan ordaintzen zaizkion kontzeptu desberdinak justifikatzen dituztenak.

- Nomina-kudeaketa kanporatuta dago, lan-aholkularitza baten ardurapean. Aholkularitza horrek egiten ditu nominak eta jasotzen ditu haiei dagozkien gorabeherak.

Nomina-berrikuspeneko prozesuan zertzelada garrantzitsu bat aurkitu dugu; zehazki, hamahiru lanposturen kasuan ordaintzen lanpostuko osagarria handiagoa zela plantilla organikoan azaltzen zena baino; dela onetsitakoa baxuagoa zelako, dela ez zelako han inolako osagarririk azaltzen.

Nahiz eta aurkitu ditugun, nominetan, plantilla organikoetako informazioarekin bat ez zetozen lanpostuko osagarriak, ikusi dugu lan-aholkularitzak prestaturiko nomina guztiak 2014ko ekitalditik ordaindu egin direla kontu-hartzaileak horien ordainketaren bidegabetasunari buruz idatzizko ohar-tarazpenik egin gabe. Egoera hori xeheago deskribatu da gure txostenaren 4. eranskinaren 4.3 apartatuan.

- 2021eko ekitaldian gauzatutako langile-kontratazioko zenbait prozedurari buruz eginiko laginketa batean, ikusi da ezen, oro har, horietan guztietan Udalak jarraitu egin diela legez ezarritako kontratazio-prozedurak.

Aurreko beste ekitaldi batzuetan kontraturikoak izan arren 2021eko abenduaren 31n kontratu indarduna zeukaten langileei buruz, udalak ezin izan digu egiaztatu ea, hiru kasutan, langileak hauta-prozesuari jarraikiz sartu ote ziren, merezimendu- eta gaitasun-printzipioen arabera. Dena den, hiru lanpostu horiek lehen aipatu den 2022ko lan-eskaintza publikoan sartuak izan dira.

Horregatik guztiagatik, ondokoa gomendatzen dugu:

- *Ordaintzen diren ordain-osagarri guztiak plantilla organikoan jaso daitezela, eta aipatu osagarriak bat etor daitezela zuzenbide indardunarekin.*

- *Udalari zerbitzu ematen dioten langileen araubide juridikoa egokiro kalifika dadila plantilla organikoan.*

- *Musika-eskolako langileekiko hitzarmen kolektibo berri bat onets dadila.*

- *Langile bakoitzarentzako espediente bat presta dadila, non jasoko baitira haren egoera pertsonal eta administrazioari buruzko frogagiri guztiak.*

5.4 ONDASUN ARRUNTETAKO ETA ZERBITZUETAKO GASTUAK

Ondasun arruntetako eta zerbitzuetako gastuak 490.000 eurokoak izan ziren; hots, aurreikusitako kredituaren ehuneko 89.

Gastu horiek ekitaldian aitorturiko betebeharrak guztien ehuneko 21 egiten dute; eta, 2020ko ekitaldikoekiko, gastu horiek ehuneko 14ko gorakada izan zuten, jarraian xehatzen den moduan:

	Aitortu-	Aitortu-	Aldea (%)
Beste enpresa batzuek egindako lanak	148.198	155.459	5
Hornidurak	97.487	115.665	16
Entitate publikoek eginiko lanak	41.142	69.980	41
Konponketak, mantentze-lana eta kontserbazioa	53.089	48.188	-10
Herriko festak	5.864	21.861	73
Kultura- eta kirol- jardueren kudeaketa	21.872	21.437	-2
Ibilgetu materialaren errentamenduak	16.063	15.976	-1
Komunikazioak	12.626	13.418	6
Aseguru-primak eta tributuak	11.676	12.758	8
Inbentariatu ezin den materiala	4.209	5.712	26
Banku-zerbitzuak	1.009	1.546	35
Protokoloko eta ordezkari-tza-lanetako arretak	80	448	82
Guztira	413.316	482.448	14

Honako gastu-lagina aztertu dugu; gastu horiek ondasun arruntetako eta zerbitzuetako gastuen kapituluko gastu guztien ehuneko 67 ordezten dute:

	Aitortutako Betebehar Garbiak, 2021
Kultur eta kirol jarduerak	69.980
Eskola garrarioa	44.252
Energia elektrikoa	40.741
Gasa	32.720
Eraikinen eta bestelako eraikuntzen konponketa eta kontserbazioa	31.406
Administrazio publikoek ediniko lanak	21.437
Ura	18.692
Lan-aholkularitza	17.252
Aholkularitza, azterlanak eta hiriainzako planaintza	16.280
Eraikinen eta bestelako eraikuntzen errentamenduak	14.879
Ariketa fisikoei buruzko ikastaroa	14.604
Guztira	322.243

Gure berrikuspenean honako gorabehera hauek detektatu ditugu:

- Fakturak kontabilizatzen eta ordaintzen dira kontu-hartzailearen sinadura besterik eduki gabe: ez da agertzen ezein arduradunen sinadura, emandako zerbitzuekiko adostasuna adieraztekoa. Era berean, ordainketa-zerrendetan ez da ageri alkatearen sinadura, horixe izan arren ordainketa-aginduetarako eskudun den organo bakarra, aplikatzeko den toki-araudiak⁵ eta aurrekontuaren exekuzio-oinarriek berek ezartzen dutenez.

- Berrikusitako fakturen ehuneko 53 ordaindu dira ezarritako gehienezko epe legala gainditurik.

- Udalak gastu bezala erregistratu ditu 2021eko ekitaldian ordaindutako hileroko kuotak, 14.865 eurokoak, banku-entitate batekin formalizaturiko finantza-errentamenduko kontratu bati dagozkionak. Beren izaeragatik, hileroko kuota horiek finantza-gastuetako hirugarren kapituluan eta finantza-pasiboetako berderatzigarrenean erregistratu beharko liriateke.

Alegia, eragiketa hori errentamendu operatibo edo alokairu bezala tratatu da, daukan izaeragatik finantza-errentamendu bezala tratatua izan beharrean. Kontabilitateko islatze okerraz gain, horrek esan nahi du egoera-balantzeko aktiboaren balorazio baxuegia egiten dela, ez baita 378.048 euroan baloratutako ibilgetua erregistratzen; baita egoera-balantzeko pasiboaren balorazio baxuegia ere, ez baita erregistratzen itzulkizun dirauen kapitala, zeina 63.187 euroan kuantifikatuta baitzegoen 2021eko ekitaldiaren itxieran.

- Munta txikiko kontratuen lagin bati buruz eginiko berrikuspenaz denaz bezainbatean, ondorioztatzen da haien exekuzioa kontratu-legediaren arabera izapidetu dela, nahiz eta honakoa ere ikusi den:

- Sektore Publikoko Kontratuei buruzko apirilaren 13ko 2/2018 Foru Legearen 81. artikulua-ren aldaketa 2021eko azaroan indarrean sartzearekin, kontratu horien parte kopurutsu batak ez ditu jada betetzen munta txikiko kontratutzat hartuak izateko irizpideak, eta halatan beharrezko gertatzen da beste esleipen-prozedura bati ekitea.
- Udalak ez ditu hiru hilean behin Nafarroako Kontratazioaren Atarian argitaratzen munta txikiko kontratuen araubide bereziaren arabera eginiko esleipenak.

⁵ Martxoaren 5eko 2/2004 Legegintzako Errege Dekretuaren 186. artikulua, zeinaren bitartez onesten baita Toki Ogasunak arautzen dituen Legearen testu bategina.

- Gastu-mota horiei dagozkien zergen likidazioei buruz, honakoa nabarmentzen dugu:
 - Udalak Nafarroako Zerga Ogasunari aurkezten dion hirugarrenetik eragiketen urteroko aitopenean jasotzen ditu, bakar-bakarrik, Balio Erantsiaren gaineko Zerga deduzitzen deneko hirugarrenetik eragiketak; zehazki, eskola-garraioko zerbitzuari dagozkionak.
 - Bai hiruhileroko PFEZ aitopenetan bai urteko ereduari, sartzen dira hiruhileko bakoitzean ordaindutako profesional-fakturei dagozkien kuotak, horrenbestez kutxa-irizpidea erabiliz, eta ez sortzapen-irizpidea, atxikipen horien aitopenean eta ordainketan.

Hori horrela, honakoa gomendatzen dugu:

- *Fakturak jaso, kontabilizatu eta ordaintzeko zirkuitua berrikus dadila, haren fase guztiak enplegatu publiko bakar batengan kontzentratzea ekidinez.*
 - *Kasuko arduradunek sinatu egin ditzatela Udalari ematen zaizkion zerbitzuengatik fakturak.*
 - *Ordainketa-zerrenda guztiak alkatearen baimena izan dezatela, bera izaki gastu-aurrekontuko ordainketak agintzeko organo eskudun bakarra.*
 - *Hornitzaileei fakturak ordaintzean bete egin daitezela lege ezarrita dauden epeak.*
 - *Finantza-gastuei buruzko hirugarren kapituluan eta finantza-pasiboari buruzko bederatzigarrenean erregistratuak izan daitezela finantza-errentamenduaren kontzeptuan ordaindutako kuotak.*
 - *Hiruhilekoan behin argitara daitezela munta txikiko kontratuen araubide bereziari jarraikiz eginiko esleipenak.*
 - *Analisi xehakatu egin dadila denboran zeharreko ematea duten hornidurei eta zerbitzuei buruz, Kontratuei buruzko Foru Legearen 81. artikulua aldatzearen ondorioz jadanik ez badituzte betetzen munta txikiko kontratu gisa tratatuak izateko irizpideak, halako moldez non kasuko esleipen-prozedurari ekinen baitzaio, kasua bada.*
 - *Hornitzaileekiko eragiketa guztiak sartuak izan daitezela hirugarrenetik eragiketen urteroko aitopenean, dena delakoa izanik ere haien kuotak Balio Erantsiaren gaineko Zergatik kentzeko aukeraren norainokoa.*
 - *Profesionalen PFEZ kuotak, bai hiruhilerokoak bai urtealdikoak, aitortzea kasuko fakturak kontabilitatean erregistratzen diren hiruhileko edo ekitaldian, berdin dela noiz ordaintzen diren horiek.*

5.5. INBERTSIOAK

400.822 euroko inbertsioak egin dira, eta ekitaldian onaturiko betebeharrak guztien ehuneko 18 egiten dute. horien exekuzioa behin betiko aurrekontuaren ehuneko 100ekoa izan da ia.

Honako inbertsio-lagin hau aztertu dugu. Inbertsioen kapituluko gastu guztien ehuneko 90 ordezkatzen dute:

	Aitortutako Betebeharrak, Garbiak, 2021
Autokarabanetarako eremua	80.483
Ikastetxearen isolamendu-inquiratzailea	78.053
Ikastetxeko berokuntzaren sektORIZAZIOA	57.233
Udaletxeko galdara	41.120
Akaborro poligonoaren argiteria	29.046
Hiri altzariak	28.686
Kiroldegiko galdara	26.741
Barazkiuneko belena urbanizatzea	20.674
Guztira	362.036

Gure berrikuspenean honako gorabehera hauek detektatu ditugu:

- Fakturak kontabilizatzen eta ordaintzen dira kontu-hartzailearen sinadura besterik eduki gabe: ez da agertzen ezein arduradunen sinadura, emandako zerbitzuekiko adostasuna adieraztekoa.
- Era berean, ordainketa-zerrendetan ez da ageri alkatearen sinadura, horixe izan arren ordainketa-aginduetarako eskudun den organo bakarra, toki-araudiak eta aurrekontuaren exekuzio-oinarriek berek ezartzen dutenez, aurreko apartatuan adierazi dugun bezala.

Kontratu-esleipenen honako lagin hau fiskalizatu dugu:

Kontzeptua	Prozedura	Kopurua kopurua	Adjudik.* zenbatekoa*	Adjudikazio. prezioa*	Beharapenaren %
Atakondoa ikastetxe publikoko berokuntza sektorizatze obra	Sinplifikatua	2	46.432	45.985	1
Atakondoa ikastetxe publikoaren isolamendu-inguratzailerikoa hobetzeko obra	Sinplifikatua	1	56.028	55.642	1

*Zenbatekoa, BEZik gabe.

Oro har, kontratuen lizitazioa eta adjudikazioa, bai eta exekuzioa ere, kontratuei buruzko lege-riari jarraituz izapidetu dira. Halere, honako gorabehera hauek aipatu behar ditugu:

- Fakturak kontabilizatzen eta ordaintzen dira kontu-hartzailearen sinadura besterik eduki gabe: ez da agertzen ezein arduradunen sinadura, emandako zerbitzuekiko adostasuna adieraztekoa. Era berean, ordainketa-zerrendetan ez da ageri alkatearen sinadura, zeina organo eskudun bakarra baita ordainketak agintzeko.
- Ez dira ageri kontratu-araudiak eskatzen dituen beharizanari buruzko txostenak.
- Bi espedienteetako baldintza-pleguan exekuzio-baldintza berezi batzuk ezartzen dira, baina espedienteetan ez da ageri gero batean segimendurik egiten ote den horiek betetzeari buruz.
- Bi espediente horietan, zuinetaren eta obra-hasieraren akta kontratuak sinatu aurretik izenpetu da.
- Atakondoa ikastetxe publikoko berokuntza sektorizatze obra-kontratuan:
 - Ez da espedienteetan ageri esleipen-hartzaileak aurkeztu ote duen pleguek exijitzen duten behin betiko bermea.
 - Esleipen-iragarkia Nafarroako Kontratazioaren Atarian argitaratu zen legez ezarritako epetik kanpo.
- Atakondoa ikastetxe publikoaren isolamendu-inguratzailerikoa hobetzeko obra-kontratuan:
 - Ez da behar bezainbeste frogatu ezen, proposamen bakarra jaso ondoren, gutxienik horietako beste bat lortzeko ahalegina egin denik edo horretarako ezintasuna frogatu denik, kontratuei buruzko araudiak exijitzen duen bezala.
 - Hornitzaileari faktura ordaindu zaio legezko epetik kanpo (30 egun, jasotzen denetik).
- Munta txikiko kontratuen lagin bati buruz eginitako berrikuspenaz denaz bezainbatean, ondorioztatzen da haien exekuzioa kontratu-legediaren arabera izapidetu dela, nahiz eta adierazi behar dugun ez direla hiru hilean behin argitaratzen Nafarroako Kontratazioaren Atarian.

Horregatik guztiagatik, ondokoa gomendatzen dugu:

- *Fakturak jaso, kontabilizatu eta ordaintzeko zirkuitua berrikus dadila, haren fase guztiak enplegatu publiko bakar batengan kontzentratzea ekidinez.*
- *Ordainketa-zerrenda guztiak alkatearen baimena izan dezatela, bera izaki gastu-aurrekontuko ordainketak agintzeko organo eskudun bakarra.*
- *Hornitzaileei fakturak ordaintzean bete egin daitezela legez ezarrita dauden epeak.*

- *Espedientean sartzea indarreko araudiak ezartzen dituen txosten eta dokumentu guztiak.*
- *Kontratuaren exekuziorako baldintza bereziak, pleguetan ezarritakoak, betetzeari buruzko irizpena ematea.*
- *Zuinketaren eta obra-hasieraren aktak sina daitezela kontratua izenpetu ondoren.*
- *Behar bezainbesteko neurrian frogatzea zergatik izan den ezinezkoa gutxienez ere bi eskaintza lortzea.*
- *Esleipen-hartzaileari exijitzea pleguetan ezarritako dokumentazio guztia aurkez dezan.*
- *Esleipenak argitaratzea kontratuei buruzko araudian ezarritako epeak errespetaturik.*
- *Hiruhilekoan behin argitara daitezela munta txikiko kontratuen araubide bereziari jarraikiz eginiko esleipenak, horretara behartzen baitu zuzenbideak.*

5.6 TRANSFERENTZIA-GASTUAK

2021ean, udalak transferentziak eta dirulaguntzak eman zizkien honako onuradun hauei:

	Transferentzia arruntak			Kapital-transferentziak		
	2020	2021	Aldaketa, ehunekotan	2020	2021	Aldaketa, ehunekotan
Udalerrriak	934	1.845	98	0	0	0
Mankomunitateak	154.807	156.023	1	7.300	7.300	0
Partzuergoak	18.589	19.217	3	0	0	0
Enpresa pribatuak	9.700	21.261	119	0	0	0
Familiak	13.389	17.269	29	0	0	0
Irabazi asmorik gabeko era-	47.794	92.868	94	0	0	0
Guztira	245.213	308.483	26	7.300	7.300	0

Transferentzia eta dirulaguntza arruntek 308.483 euro egin zuten. 2021ean aitortutako betebeharren guztizkoaren ehuneko 14 dira. Haien exekuzio-maila behin betiko kredituen ehuneko 100 izan zen. Aurreko urtearen aldean, ehuneko 26 igo dira.

Kapital-transferentziak eta dirulaguntzak 7.300 eurokoak izan ziren; horrek udalaren 2021eko betebeharrak aitortu guztien ehuneko 0,3 egin zuen. 2020ko ekitaldian, zenbatekoa hori bera izan zen.

Transferentzien eta dirulaguntzen honako lagin hau aztertu dugu:

Kontzeptua	Aitortutako betebeharrak, 2021
Mankomunitateei	156.023
Kirol-erakundeentzako dirulaguntzak	21.800
Partzuergoak	19.217
INASA. lekukotasuna jasotzea	13.249
Kulturarteko diagnostikoa	12.705
Guztira	222.994

Gure berrikuspenean honako gorabehera hauek detektatu ditugu:

- *Udalak ez dauka Dirulaguntzei buruzko 38/2003 Lege Orokorrak edukitzera behartzen duen Dirulaguntza Plan Estrategikoa onetsita.*
- *Ordainketa-zerrendetan ez da ageri alkatearen sinadura, zeina organo eskudun bakarra baita ordainketak agintzeko.*

- Kapitulu honi egotzi zaizkio "INASA, lekukotasuna jasotzea" eta "Kulturarteko diagnostikoa"ri dagozkien gastuak, zeinek 25.954 euro egiten baitute guztira. Gastu-mota honen izaeragatik, kalifikazio juridikorik aproposena zerbitzu-kontratu izatearen iruditzen zaigu, zeina ondasun arrunt eta zerbitzuetako gastuei buruzko kapituluari, bigarrenari alegia, egotzi beharko bailitzaiok.

- Udalak zuzenean ematen dizkie dirulaguntzak udalerriko kirol-erakunde guztiei, baina ez da frogatzen dirulaguntzei buruzko araudiak salbuespeneko laguntza-emate araubide honetara jotzeko ezartzen dituen baldintzak betetzen direnik. Era berean, ez da ageri kasuko lankidetzeta-hitzarmenak formalizatu direnik, ez eta eginiko jardueraren eta gastuaren frogagiri egokiak eskatu direnik ere.

Hori horrela, honakoa gomendatzen dugu:

- *Dirulaguntzei buruzko Plan Estrategiko bat onets dadila, aplikatzekoa den araudiak ezartzen duenari jarraikiz.*

- *Kirol-erakundeei laguntzak emateko deialdi publiko bat onets dadila, bere oinarri arautzaileekin eta guzti, zuzenbidez ezartzen dena beterik.*

- *Transferentzia arrunten kapituluaren erregistratu behar diren bakarrak izaera honetako gastuak direnak dira.*

- *Ordainketa-zerrenda guztiek alkatearen baimena izan dezatela, bera izaki gastu-aurrekontuko ordainketak agintzeko organo eskudun bakarra.*

5.7 TRIBUTUAK, PREZIO PUBLIKOAK ETA BESTE DIRU-SARRERA BATZUK

2021ean tributuek, prezio publikoak eta bestelako diru-sarrerak direla-eta aitorturiko eskubi-deek 991.479 euro egiten dute, udalaren diru-sarrera guztien ehuneko 43 alegia, eta ondoko kontzeptuei dagozkie:

Diru-sarreren kapituluak	Aitortutako eskubide garbiak, 2020	Aitortutako eskubide garbiak, 2021	2021eko exekuzioaren %	2021/2020 alde (%)
Zuzeneko zergak	528.227	612.546	111	16
Zeharkako zergak	41.134	116.120	178	182
Tasak, prezio publikoak eta beste diru-sarrera batzuk	217.392	262.813	93	21
Diru-sarrerak, guztira	786.753	991.479	110	26

Zergak

Zergak Udalaren diru-sarrera guztien ehuneko 34 egiten dute, eta kontzeptu hauetan sailkatzen dira:

Kontzeptua	Aitortutako eskubide garbiak, 2021	Diru-sarrera guztien gainean (%)	2021/2020 alde (%)
Zuzeneko zergak	612.546	27	16
Lurraren kontribuzioa	250.650	11	-1
Ibilgailuak	165.536	7	6
Hiri-lurren balio-gehikuntza	134.540	6	308
Jarduera ekonomikoen gaineko zerga	61.821	3	-28
Zeharkako zergak	116.120	5	182
EIOZ	116.120	5	182
Guztira	728.666	33	28

Nabarmentzekoak dira udal-gainbalioaren gaineko zergak eta eraikuntzen, instalazioen eta obren gaineko zergak izan dituzten gehikuntzak, udalean lursail-eskualdaketa eta eginiko obra gehiago egon izanaren ondorioz. Ekonomia-jardueren gaineko zergari dagokionez, beherakada bortitzaren zergatia da abenduaren 29ko 22/2020 Foru Legean egindako aldaketa, zeinaren bidez zerga hori ordaintzetik salbuetsiak izan baitziren, 2021eko urtarrilaren 1etik aurrerako eraginez, milioi bat euro baino gutxiagoko negozio-zifra daukaten subjektu pasiboak.

Udalak 2021eko ekitaldian aplikatutako zerga-tasak, lurraren kontribuzioa izan ezik, Nafarroako Toki Ogasunei buruzko 2/1995 Foru Legeak jasotzen duen sortaren tarte ertain-altuan kokatzen dira, hurrengo taulan ikus daitekeen bezala:

Zerga zein	Udala	2/95 Foru Legea
Lurraren kontribuzioa	0,196	0,10 - 0,50
Jarduera ekonomikoen gaineko zerga	1,4	1 - 1,4
Hiri-lurren balio-gehikuntzaren gaineko zerga	21,25	8-25
Eraikinak, instalazioak eta obrak	4,32	2 - 5

2021ean indarrean zegoen balioespen-ponentzia Ogasuneko eta Finantza Politikako Zerbitzuen urriaren 25eko 63/2017 Ebazpenaren bidez onetsi zen.

- Udalak ez dauka 2021eko ekitaldirako onetsitako Tributu Kontroleko Udal Planik.

Tributu-izaki bakoitzaren laginketa bat egin dugu. Oro har, zerga-likidazio eta -bilketa modu egokian egiten da, salbu eta detektatu diren gorabehera hauengatik:

- Ez da ageri irizpide formalizaturik zeinaren indarrez zergadunei obren exekuzio-amaieraren frogagiriak eskatzen baitzaie EIOZaren behin betiko likidazioaren ordainarazpenerako. Exekuzioari buruzko frogagiriak obra handien kasuan bakarrik eskatzen dira. Ez da definitu, baina, zer ulertzen den obra handizat. Gainera, EIOZen amaiera-likidazioa egiten da baldin eta hirigintzako aholkulariaren aburuz aldaketa muntadunak gertatu badira obra-aurrekontuarekiko.

- Udalak kontratatuta dauka bere tributuen eta tasen premiamendu-bideko tributu-kudeaketa. Arau orokor gisa, hurrengo ekitaldiaren hasieran udalak zergadunei jakinarazten die zein diren aurreko ekitaldian ordaindu ez diren tributu-betebeharrak, eta ehuneko bosteko errenergua aplikatzen du.

Alabaina, ikusi da atzerapen oso handia dagoela, borondatezkotasun-epearen amaieran ordaindu gabe dirauten zor guztietarako, betearazpen-bideko zor-kudeaketaren epealdia hasi ahal izateko premiamendu-probidentzien izapidetzean. Landa-lanaren amaiera-egunean ez zegoen jaulkita ezein premiamendu-probidentzia 2019, 2020 eta 2021eko ekitaldietako zor ordaindugabeengatik, eta horrek agerian jartzen du zor horien balizko preskripzioa gertatzearen arriskua.

Hori guztia kontuan hartuta, ondokoa gomendatzen dugu:

- *Tributu Kontroleko Udal Plan bat onets dadila tributu garrantzitsuenetarako.*
- *Zergadunei eska dakiela, indarreko araudiak ezartzen dituen kasu guztietan, amaierako obra-exekuzioaren frogagiriak, EIOZaren behin betiko likidazioa egite aldera.*
- *Kasuko premiamendu-probidentziak onets daitezela, eta kontraturiko kudeatze-entitateari komunikatu dakizkiola ordainagiri ordaindugabeen borondatezko ordainketarako epea mugaeguneratzen den unean, halako moldez non berandutzarik gabe ekin ahal izanzen baitzaio zor kobratugabeetarako bete-arazpen-bideari.*

Tasak, prezio publikoak eta beste diru-sarrera batzuk

Tasek, prezio publikoek eta beste diru-sarrera batzuek udalaren diru-sarrera guztien ehuneko 11 egin zuten, eta honako hauei dagozkie:

Kontzeptua	Aitortutako esku- bide garbiak, 2021	Diru-sarrera guz- tien gainean (%)	2021/2020 aldea (%)
Tasak eta prezio publikoak	245.309	11	17
Beste diru-sarrera batzuk	7.394	0	0
Guztira	262.813	9	17

Honako partida hauen lagin bat aztertu dugu:

Kontzeptua	Zenbatekoa	2021/2020 aldea (%)
Igerilekuak erabiltzearen tasak	63.403	43
Musika-eskolaren tasak	58.671	8
Hornitze-enpresen aprobetxamendu berezia	50.837	-8
Eskola-garraioaren tasak	27.778	7
Jarduera fisikoen tasak	17.864	96

Egindako lanaren bidez egiaztatu dugu ezen, oro har, likidazioa eta diru-bilketa araudi indardu-nari jarraikiz egin direla.

5.8 TRANSFERENTZIENGATIKO DIRU-SARRERAK

Transferentzia arruntengatiko eta kapital-transferentziengatiko diru-sarrera aitortu garbiak 1.148.059 eta 140.786 euro egin zuten hurrenez hurren, eta haien multzoak diru-sarrera guztien ehuneko 56 egiten du. Aurreko urtearekiko konparaziozko datuek honako alde hauek erakusten dituzte:

Diru-sarreraren kapituluak	Aitortutako eskubide garbiak, 2020	AEG 2021	2021/2020 al- dea (%)
Transferentzia arruntak	1.045.829	1.148.059	10
Kapital-transferentziak	181.794	140.786	-23
Guztira	1.227.623	1.288.845	5

Transferentzia- eta dirulaguntza-partiden honako lagin hau aztertu dugu:

Kontzeptua	Aitortutako
Transferentzia arruntak	1.144.926
Toki ogasunen funtsa	766.244
NEZ dirulaguntzak	80.642
Ikastetxe-mantentzerako dirulaguntza	76.680
Iturraskari eta E.S.P. dirulaguntza	46.708
Hautetsien lansariak	34.056
Musika-eskolarako dirulaguntza	32.301
Nafarroako Gobernuaren beste dirulaguntza batzuk	62.894
udalen ekarpena musika-eskolarako	32.895
Genero-indarkeriaren aurkako estatu-ituna	12.506
Kapital-transferentziak	140.786
Nafarroako Gobernuaren dirulaguntza, ikastetxearen sektorizazioakoa	45.289
Nafarroako Gobernuaren dirulaguntza, ikastetxearen isolamendu-inguratzailerakoa	39.273
Eskualde Garapenerako Europako Funtsaren dirulaguntza, ikastetxearen isolamendu-inguratzailerakoa	33.943
Eskualde Garapenerako Europako Funtsaren dirulaguntza, ikastetxearen sektorizazioakoa	11.944
Pikuberri Elkarte, ekarpena	10.337

Nafarroako Gobernuak emandako dirulaguntzen berrikuspena honako honetan gauzatu da: udalaren aurrekontu-informazioaren eta Foru Komunitateko Administrazioaren arteko koherentzia neurtzean eta, gainerako partidei dagokienez, dirulaguntzen emate- eta ordaintze-ebazpenen eta dirulaguntzak oinarritzen eta justifikatzen dituen administrazio-dokumentazioaren egiaztatzean.

Egindako lanetik ondorioztatzen dugu ezen, oro har, aitortutako eskubideen likidazioa justifikatuta dagoela aplikatu beharreko araudiaren arabera. honako salbuespenarekin:

- Udalak 2021eko abenduaren 31n kobratzeke gisa kontabilizatuta mantentzen du 39.273 euroko zenbatekoa duen dirulaguntza bat, Toki Administrazioako zuzendari Nagusiaren ebazpen bidez 2021eko urriaren 18an errefusatua izan zena, finantzatu beharreko inbertsioa ez zegoelako Toki Inbertsioen Planean sartuta. Horrek esan nahi du ez dagoela udalaren alde eskatzeko moduko krediturik eta, horrenbestez, ez zen bidezkoa eskubide baten aitortzea kontabilizatzea.

Hala ere, geroagoko gertaera gisa adierazten dugu udalak 2022ko apirilaren 13an administrazioarekiko auzi-errekurtso bat aurkeztu zuela aipatu ebazpenaren aurka, eta Nafarroako Justizia Auzitegi Nagusiak 2022ko azaroaren 24an epai bat eman duela, udalaren errekurtsoa baiesten duena. Txosten hau jaulkitzen den egunean ez dakigu ea Nafarroako Gobernuak epai hori errekurritu duen.

Azaldutakoa kontuan harturik, gomendatzen dugu:

Jatorria beste administrazio publiko batzuen dirulaguntzetan duten dirulaguntzak aitortzea, entitatearen aldeko kreditu exijigarri bat badagoela aitortzen denean.

5.9. ONDARE BIDEZKO DIRU-SARRERAK

Ondare bidezko diru-sarrerak bete-betean dagozkio udalak hirugarren batengandik urtero jasotzen duen kanonari, 1993an jabari publikoko gune bat emakidan emateagatikoa, bertan lokal sozial bat eraiki eta ondoren ustiatzeko emakidan. Ezartzen zenez, hasiera bateko iraupena 25 urtekoa zen, eta gero zilegi ziren isilbidezko urtealdi-luzapenak, 50 urteko gehieneko eperainokoak. Horren ondoren, eginiko instalazio eta eraikin guztiak udalaren eskuetara itzuliko dira.

Eginiko berrikuspenean egiaztatu dugu emakidaren baldintzei jarraikiz egiten dela kanonaren likidazio eta diru-bilketa.

5.10. INBERTSIO ERREALEN BESTERENTZEA

2021eko ekitaldian, inbertsio-besterentzearen ondorioz udalak izandako diru-sarrerak 7.099 eurokoak izan dira. Kopuru hori dagokio udalaren lokal bat saldu izanari, eta egiaztatu dugu horretarako erabilitako prozedurak bete egiten duela ondare-araudia.

5.11. HIRIGINTZA

Udalak hirigintza-zereginak betetzen ditu kanpo-aholkulari batekin kontraturiko zerbitzuen bitartez. Halaber, Sakanako Mankomunitatetik hirigintza-aholkularitza ematen zaio, Etxebizitza eta Eraikinak Birgaitzeko Bulegoaren eskutik.

Udal Plan Orokorrari Ingurumen, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitzako kontseilariaren ekainaren 30eko 760/2000 Foru Aginduaren bitartez eman zitzaion behin betiko onespena. Gero batean, aldaketa batzuk ere egin izan zaizkio, INASaren instalazio zaharren antolaera berria izapidetu ahal izateko.

Udalak ez dauka Udalaren Lurzoru Ondarearen erregistro bat, non ikusi ahalko bailitzateke ondare hori zer elementuk osatzen duten. Era berean, hirigintza-hitzarmenen erregistrorik ere ez dauka.

Horregatik, hona hemen gure gomendioak:

Udalaren Lurzoru Ondarearen Erregistro bat sortzea, bai eta hirigintza-hitzarmenena ere, horretara behartzen duenez lurraldearen antolamendu eta hirigintzari buruzko araudiak.

BEHIN-BEHINEKO TXOSTENARI AURKEZTUTAKO ALEGAZIOAK

Irurtzungo Udaleko alkate **Aitor Larraza Carrera** jaunak, haren izenean eta hura ordezkatzuz, Kontuen Ganberaren aurrean agertu eta, Zuzenbidean egokien den moduan, honako hau ADIERAZTEN DU:

Sinatzen duen alkateak 2023ko apirilaren 24an Irurtzungo Udalaren 2021eko ekitaldiko behin-behineko fiskalizazio-txostena jaso zuen eta Nafarroako Kontuen Ganbera arautzen duen 19/1984 Foru Legearen 11.2 artikuluan ezarritakoari jarraituz, alkate den heinean honako alegazio hauek aurkezten ditu:

ALEGAZIOAK**AURRETIAZKOA: ORO HAR.-**

Lehenengo eta behin, sinatzen duen alkateak eskerrak eman nahi dizkie Udal osoaren izenean Kontuen Ganberari eta landa-lana egin duen auditoretza enpresari, azken hilabeteotan egindako lanagatik, Udalaren 2021eko ekitaldiko kontu orokorraren azterketa prestatze aldera.

Horrekin batera, udal arduradunek une oro prestutasuna erakutsi dute Ganberarekin elkarlanean aritzeko, sortzen ahal zitzaizkion zalantzak argitzeko asmoz, bai eta auditoretza enpresak edo Ganberak berak gomendioak emanez gero horiek betetzeko asmoz ere.

Horretarako, alkateak eta udal langileek bilera ugari egin dituzte Kontuen Ganberako langileekin, eta ordu asko erabili dituzte atzemandako ahuleziak azaltzeko eta, kasua bada, hortik etor litezkeen erantzukizunak argitu eta egindako gomendioak betetzeko. Horretarako espediente batzuk ireki dira, bai eta txosten tekniko batzuk eskatu ere, geroago aipatuko direnak.

Irurtzungo Udalak hartu egin ditu Kontuen Ganberak egindako gomendioak, haiek iristen zitzaizkion unetik beretik. Halaber, sinatzen duen alkateak bere borondate irmoa agertzen du, behar diren neurri guztiak hartzeko diruzaintza eta barne-fiskalizazioaren arloaren funtzionamendu egokia bermatzeari begira, eta sor litezkeen erantzukizunak argitzeko.

I.- IRITZI-ERREFUSARI BURUZ.-

Nafarroako Kontuen Ganberaren behin-behineko txostenak ez du iritzirik ematen 2021eko abenduaren 31n Irurtzungo Udalak zeukan Kontu Orokorrari buruz, txosten berean jasotzen den moduan, gorabehera batzuen eragin oso nabarmenaren ondorioz ezin izan delako auditoretza-ebidentziarik lortu, aipatu kontu orokorrari buruzko auditoretza-iritzirik eman ahal izateko moduko oinarria ematen duenik, behar bezainbestekoa eta behar bezalakoa.

“Iritzi-errefusaren oinarria” atalean gorabehera horiek deskribatzen dira, eta haiei buruz zenbait zehaztapen egin behar dugu:

Lehena.- Lehenengo eta behin, nabarmentzekoa da Udalean barne-kontrol egokirik ez egotea, nagusiki ez delako behar bezalako funtzio-bereizketarik izan, enplegatutako publiko baten batangan kontzentratuta egon baita kudeaketa finantzarioaren prozedura ia-ia osoa.

Toki entitateen kudeaketa ekonomikoaren gainean kontu-hartze organoak egiten duen barne-kontrola Toki Administrazioari buruzko Foru Legearen 240. eta 243.-251. bitarteko artikuluetan araututa dago. Indarreko araudiarekin bat, udaleko kontu-hartzailetza da Kontu orokorra osatzeko ardura duena. Kontua halako moduz egin behar du non leialki irudikatuko baititu udalaren aurrekontu-likidazioa, ondarea, emaitzak eta finantza-egoera. Erantzukizun horren barruan sartzen da Kontu Orokorra egiteko eta aurkezteko bidezko barne-kontrola sortzea, ezartzea eta mantentzea, iruzurrak edo erroreak eragindako oker materialik gabe. Udalari dagokio bermatzea urteko kontuetan jasotako jarduerak, aurrekontu- eta finantza-eragiketak eta informazioa aplikatzekoak diren arauekin bat datozela eta barne-kontrolerako sistemak ezartzea. Udalak du finantza-kontrola eta eraginkortasunaren kontrola ezartzeko ardura. **2020ko ekitaldirako Nafarroako toki sektore publikoari buruzko fiskalizazio txosten**ean islatzen den moduan, Udalari egotzitako finantza-kontrola eta eraginkortasunaren kontrola funtzioak gutxiago hedaturik daude. Horren arrazoietako bat izan daiteke Nafarroan gai hori gutxi araututa egotea, ez baita erregelamenduz garatu Estatuan bezala, non apirilaren 28ko 424/2017 Errege Dekretua onetsi baitzen, toki sektore publikoko entitateen barne-kontrolaren araubide juridikoa arautzen duena.

Nabarmentzekoa da azken urteotan ez dela inolako eragozpen-oharrik egin Udaleko kontu-hartzailearen aldetik, eta alkateari ez zaiola ohartarazi orain Kontuen Ganberak aurkitzen dituen desadostasunetatik bakar bat ere. Horrela ondorioztatzen da Kontuen Ganberak prestatutako Nafarroako toki entitateei buruzko fiskalizazio txostenean (2018-2019 ekitaldiak), non ikus daitekeen Irurtzungo Udala ez dela agertzen informazioa igorri ez duten entitateen zerrendan (I. eranskina).

Ildo horretan, Udalaren 2021eko kontua Udalaren osoko bilkuran onetsi zen aurkako botorik gabe eta Udaleko langileek inolako salbuespen edo eragozpen-oharrik aurkeztu gabe, Udalaren urte bereko aurrekontuarekin gertatu zen bezala.

Zehazki, Udalaren 2021erako aurrekontua 2020ko abenduaren 22an onetsi zen hasieraz batez, Udalbatzaren gehiengoak aldeko botoarekin eta bi abstentziorekin. Kontu orokorra 2022ko urriaren 21eko bilkuran onetsi zen, aho batez. Bi bilkura horien aktak erantsi dira, 1. eta 2. dokumentu gisa.

Edonola ere, eta azaldutakoa gorabehera, Udalak neurri batzuk hartu ditu Kontuen Ganberak barne-kontrola sistema indartzeari begira egin dituen gomendioak betetzeko.

Oro har, alkateak komunikazio bat igorri zien Idazkaritzako eta Kontu-hartzailetzako langileei, non gogorarazten zien haien lanpostuen eginkizunak jasota daudela Nafarroako Toki Administrazioari buruzko Foru Legearen 238. artikuluan eta hurrengoetan, bereziki gogorarazita Kontuen Ganberak prestatutako auditoretzako behin-behineko txostenean (3. dokumentua) jasotzen diren eginkizun eta/edo gomendio arruntak.

Komunikazio horren bidez udal langileei gogorarazi zitzaizkien Udalaren Kontu-hartzailetzak barne-kontrola eta fiskalizazioko eginkizunak bete behar dituela, bai eta banku-kontuen erabiltzea eta zaintzea ere, lege-esparruan ezarritakoarekin bat.

Horrekin batera, neurriak hartu dira Udalaren barne-antolaketa berrikusteko eta eginkizunak bereizteko. Halatan, Udalak azterketa bat enkargatu dio kanpoko aholkularitza bati, plantilla organikoaren egokitasunari eta lanpostuen balorazioari buruzkoa.

Aipatu lanaren helburua da argi definitzea lanpostu bakoitzaren eginkizunak, kontrol eta barne-fiskalizazio handiagoa egon dadin, eta egungo plantilla organikoaren egokitasuna aztertzea, eginkizun horiek guztiak betetzeari begira.

Horretarako, Alkatetzak maiatzaren 12an emandako 87/2023 Ebazpenaren bitartez agintzen da premiaz berrikustea Udalaren barne-kontrolerako sistema, haren egitura eta lanpostuen balorazioa (4. dokumentua).

Ondasun arruntetako eta zerbitzuetako gastuei dagokienez, Udalak berrikusi egin ditu fakturak jaso, kontabilizatu eta ordaintzeko zirkuitua, emandako zerbitzuengatik fakturak arduradunek sinatzea eta alkatearen baimena ordainketak egiteko.

Horretarako, Alkatetzak apirilaren 28an emandako 80/2023 Ebazpenaren bitartez adierazten da nola jokatu behar den Udalaren aurrekontuen konturako fakturen ordainketa onartu eta agintzerakoan (5. dokumentua). Horren bidez, prozedura berri bat ezarri da, Kontu-hartzaitzako langileek bete beharko dutena fakturak ordaintzeko.

Aipatu ebazpena Udaleko kontu-hartzaileari jakinarazi zitzaion, 4. puntuan jasotzen den bezala.

Gainera, Udalaren banku-kontuetan sinadura mankomunatua ere sartu da. Era horretan Ganberaren gomendioetako bat betetzen da. Aldaketa egin da Udala izaera horrekin agertzen ez zen banketxe guztietan: Rural Kutxa, La Caixa eta Banco Santander (6. dokumentua).

Amaitzeko, gai horren inguruko obligazio orokorrak sartu egin dira alkateak Idazkaritzako eta Kontu-hartzaitzako langileei igorritako komunikazioan, lehen aipatu den horretan.

Bigarrena. Kontuan hartu beharreko beste gorabehera bat da **lau enplegatutako publikok** (Idazkaritza, Kontu-hartzaitza, Gaztetxokoko monitoreak) **jasotako ordainsarien gaindikina**, eta garbiketako langileei ordaindutako soldatak zuzenak ote diren **ezin baliozkotzea**.

Horren inguruan, adierazi behar dugu landa-laneko langileek ordainsarrietan deskonjuntzioak zirela ohartarazi zuten unetik beretik Irurtzango udalak ahal izan duen lankidetzaren guztia eskaini duela eta egindako gomendio guztiak bete dituela.

Lehenengo eta behin, alkateak eta Udaleko idazkariak Udaletxean diren dokumentuak aztertzen hasi ziren: osoko bilkuren aktak, alkatetzaren ebazpenak eta txosten juridikoak, hainbat ekitalditakoak, horri buruzko informazio guztia eskuratzeko.

2023ko urtarrilaren 4an Udaleko idazkariak lan-aholkularitzari eskatu zion kalkulatzea pertsona horiek jasotzen ari zirenen eta Udalaren plantilla organikoan ezarritakoaren arteko aldeak (7. dokumentua). Geroago, aholkularitzarekiko komunikazioak egon dira informazio eskaera zehazteko eta zedarritzeko.

Halaber, 2023ko otsailaren 6an Idazkaritzak aholkularitzari helarazi zion idazkariaren eta kontu-hartzailearen lanpostuak betetzen zutenek jaso behar zutela Udalaren plantilla organikoan ezarritakoaren arabera ordainsaria (8. dokumentua).

Beraz, atzemandako aldeak fiskalizazio-lanean zuzendu dira.

2023ko urtarrilaren 10ean Alkatetzaren 11/2023 Ebazpena eman zen, gertakariak argitzeko espedientea irekitzeko (9. dokumentua). Zehazki, Idazkaritzari eta Udaleko kontu-hartzaileari eskatu zitzaien Kontuen Ganberak atzemandako gertakariak aztertu eta informazioa ematea “desdoitzea hasi zen datari eta hura gertatzeko balizko arrazoiei buruz”. Ebazpen hori Idazkaritzako eta Kontu-hartzailetzako langileei jakinarazi zitzaien.

Era berean, Biderka abokatu-bulegoari eskatu zitzaion garbiketako langileen subrogazioari buruzko txosten juridiko independente bat prestatzea.

2023ko martxoaren 7ko data duen txosten horretatik (10. dokumentua) ondorioztatzen da neurriak hartu behar direla garbiketako langileen egoera erregularizatzeko: plantilla organikoa aldatzea, lanpostuen ebaluazio bat egitea eta langileei erreklamatzeko benetan eskuratutakoaren eta plantilla organikoaren arabera ordaindu behar zenaren arteko ordainsarien aldeak (kontuan hartuta, betiere, preskripzio epea).

Esana dagoen bezala, Udalak jadanik eskatua zion aholkularitzari ordainsarien arteko alde horien kalkulu ekonomikoa. Aholkularitzak behin betiko kalkuluak egiten dituenen, langileei pertsonalki jakinaraziko zaizkie itzuli beharreko zenbatekoak.

Egun berean, 2023ko martxoaren 7an, Udaleko idazkariak “atzemandako irregularitasunei” buruzko txosten juridikoa eman zuen (11. dokumentua), alkatearen eskariz. Aipatu txostenean teknikariak ondorioztatzen du zenbait akordio hartu beharra dagoela egoera erregularizatzeko: Udaleko langile batzuei ordaindutako lansariak itzultzea; garbiketako langileen lanpostuko osagarria aldatzea; edo Kontu-hartzailetzako langileei zehapen-espediente bat irekitzea.

Horretarako, Udalaren Osoko Bilkurak 2023ko martxoaren 7an erabakia hartu zuen (12. dokumentua) prozedura abiarazteko azken urteetako nominak aztertze aldera, atzemandako desdoitzeak erregularizatzeko asmoz.. Erabaki horren bidez ere 2023ko plantilla organikoa aldatzeari ekin zitzaion.

Plantillaren hasiera bateko onespena 2023ko martxoaren 20ko 56. NAO-n argitaratu zen. Ezarritako epean alegaziorik aurkeztu ez zenez, plantillaren behin betiko onespena 2023ko maiatzaren 22ko 106. NAO-n argitaratu zen (13. dokumentua)

Era horretan, Udalak bete egin du Ganberaren gomendio nagusietako bat, hasiera eman baitio nominak aztertzeko eta plantilla organikoa aldatzeko prozedurari.

Gaur egun, Udalak baditu langile bakoitzak itzuli beharreko zenbatekoen gaineko behin-behineko kalkuluak, lan-aholkularitzak egindako kalkuluetan desdoitzeak atzeman direlako (Kontu-hartzailetzako langileei gradua era okerrean aplikatzea eta abar).

Behin-behineko kalkulu horien arabera, garbiketako, Idazkaritzako eta Kontu-hartzailetzako langileek itzuli beharreko zenbatekoa **14.205,47 euro** izanen litzateke, **preskripzio epe osorako**, baina oraindik egin gabe daude azken doikuntzak (4 urte administrazioko langileentzat eta urte bat lan-kontratudunentzat).

Kalkulu ekonomikoetan atzemandako desdoitzeak zuzendu bezain azkar, sinatzen duen alkateak konpromisoa hartzen du espedientea bultzatu eta bidezko diren jakinarazpenak egiteko eta dagozkion zenbatekoak eskatzeko eta, halaber hori guztia Kontuen Ganberari helarazteko.

Edonola ere, ezin dugu ahaztu Kontuen Ganberaren auditoria 2021eko ekitaldiari dagokiola eta, horrenbestez, Udalak lan-aholkularitzari eskatu ziola aipatu aldian desegoki ordaindutako zenbatekoak kalkulatzeko (edozein izanda ere langileek itzuli beharreko zenbatekoa eta preskripzio epea). 2021eko ekitaldiari dagokion zenbatekoa, 14. dokumentuan ikus daitekeenez, **5.128,88 euro** iritsiko litzateke, langile guztientzat.

Hortaz, kontuan hartuta 5.128,88 euroko zenbateko hori, ondorioztatzen da Irurtzango Udalaren 2021eko kontu orokorrean (hori baita Kontuen Ganberaren txostenaren xede den ekitaldia) izandako eragina eta ukipena dela 2022ko urriaren 21ean Udalbatzak onetsitako **kontu ixtearen zenbateko osoaren % 0,22** (gastuak: 2.278.712,51 euro).

Gainera, kontuan hartu behar da egindako ikerketa eta prestatutako txosten tekniko guztiak ondorio berera iritsi direla: desdoitzea gertatu da Udaleko langileek jasotakoaren eta plantilla organikoan ezarritakoaren artean, akatsak izatearen ondorioz, ez ordea erabaki arbitrarioengatik.

Idazkaritzako zen Kontu-hartzaitzako langileen kasuan, Udaleko idazkariak prestatutako txosten juridikoak adierazten du deskoadratzea datorrela administrazio-kontratudunek 2019ra arte aitortuta ez zuten gradutik.

Garbiketako langileen kasuan, itxura guztien arabera, langileei ordaindutako soldata bat zetorren sektore pribatuan jasotzen ari zirenekin, 2013an onetsi zen subrogazioaren ondorioz.

Horrela biltzen da Irurtzango Udalak 2012ko uztailaren 3ko Osoko Bilkuran onetsi zuen erabakian, non espresuki erabakitzen zen “oneste Udala garbiketako 7 langileen kontratuetan subrogatzea (...) gaur egun dituzten lan-baldintza eta ordainsari berberetan” eta “hasiera batean oneste Udalaren plantilla organikoa, bertan sartzeko (aipatutako) lanpostuak”. Osoko Bilkuraren akta 15. dokumentu gisa eranstean da.

Zentzu berean jasotzen da Udaleko Idazkariaren 2013ko urriaren 25eko txostenean, non ondorioztatzen baita subrogazioa egin zela langileen lehenagoko enpresan zituzten ordainsari berberekin eta, egoera hori erregularizatzeko Udalak kalkulatu behar zuela “bi ordainsari horiek parekatzeko lanpostuko osagarrian beharrezkoa zen ehuneko”. Aipatu txosten juridikoa Toki Administrazioako Zuzendaritza Nagusiari igorri zitzaion, 2013ko abenduaren 10ean, 16. dokumentuan agertzen den bezala, eta inork ez zuen ohartarazi erabakiaren eta indarreko ordenamendu juridikoaren arteko desadostasunari buruz.

Kasu honetan deskoadratzearen oinarria da une hartan Udalbatzak erabaki bat hartu zuela langileak subrogatzeko sektore pribatuan aitortuta zituzten baldintza berberekin (Langileen Estatutuaren 44. artikuluan aurreikusten den moduan), baina erabaki hori ez zen sartu Udalaren plantilla organikoan.

Horiek horrela, uler daiteke garbiketako langileak jasotzen ari ziren ordainsaria bat zetorrela Udalbatzak 2013an erabakitakoarekin eta Langileen Estatutuan aurreikusitakoarekin.

Hortaz, esan dezakegu lege-esparruaren barruan hartutako erabakiak direla, baina ez direla zuzen exekutatu.

Eta egoera hori zuzentzeko, jadanik hartuta daude Kontuen Ganberak eta udal langileek gomendatutako neurriak.

Hirugarrena.- Kontuan hartu beharreko hirugarren gorabehera da Udalak ez duela behar bezala identifikatutako eta baloratutako **ondasun-inbentario** bat; horregatik ezin izan da egiaztatu arrazoizkoa ote den egoera-balantzeko ibilgetua, zeina 12.846.372 eurokoa baitzen 2021eko abenduaren 31n.

Hala ere, alkateak eta Udaleko idazkariak hainbat dokumentu aztertu ondoren egiaztatu dute **Irurtzongo Udalak eduki baduela udal inbentario bat**.

2017an prestatu zen eta Toki Administrazioako Zuzendaritza Nagusiari igorri zitzaion 2018ko apirilaren 27an, 17. dokumentuan ikus daitekeen bezala.

Halaber, ezin dugu ahaztu behar bezala identifikatu, baloratu eta eguneratutako ondasun-inbentariarik eza dela Kontuen Ganberak toki entitateei egiten dizkien txostenetan behin eta berriz agertzen diren alderdi horietako bat, eta ekitaldiz ekitaldi Nafarroako toki sektore publikoaren gaineko txostenean biltzen diren gomendioetako bat.

Datozen hilabeteotan Irurtzongo Udalak izapideak abiaraziko ditu udal inbentarioa eguneratzeko.

Laugarrena.- Laugarren gorabehera lotuta dago **egoera-balantzearen pasiboarekin**, Kontuen Ganberaren ustez ez duelako islatzen, 2021eko abenduaren 31n, 63.187 euroko zenbateko bat, 2014ko ekitaldian formalizatu zen finantza-errentamendu batetik itzuli behar zen zenbatekoari dagokiona. Egoera-balantzearen aktiboan ez dira agertzen ere aipatu finantza-operazioaren bidez eskuratutako pabilioia eta lursaila; oro har, 378.048 euroko balorazioa zuten formalizatzeke unean.

Aipatu akatsa zuzentzeko, izapideak abiarazi dira aurrekontu-aldaketa bat oneste aldera Kontuen Ganberak ohartarazitako moduan.

Horrela jasotzen da kontu-hartzaileak prestatutako ziurtagirian, non egiaztatzen den Udalaren balantzearen aktiboa eta pasiboa “ islatuta gera dadin beheko solairuaren eta itzuli behar den lotutako maileguaren balorazioa”, 18. dokumentuan agertzen den bezala.

Azken batean, azaldutako alegazioak ikusita eta kontuan hartuz auditoreak adierazitako oinarrien entitatea, gehiegizkotzat jotzen dugu ateratzen duen konklusioa: iritzi-errefusa. Zergatik diogu hori? Kontuan hartu behar da badagoela Udalaren kontuen gaineko iritzi global bat ematea. Horregatik, iruditzen zaigu Irurtzongo Udalaren finantza-egoeraren errealitateari askoz hobe egokituko litzaiokeela iritzia “salbuespenekin” ematea, egiaztatuta geratu delako albuespenak edo desadostasunak daudela aplikatzekoak diren iritzi, arau edo printzipioak betetzean, baina horrek ez duela justifikatzen aurkako iritzi edo iritzi-errefus bat. Uste dugu fiskalizazioaren norainokorako mugak egon daitezkeela eta are alderdi batzuetan ere (balantzea edo finantza-egoera akastun edo osatu gabeak), baina haien entitatea ez da aski iritzi bat adieraztea eragozteko. Gure ustez auditoreak iritzia errefusatu beharko luke bere iritzia oinarritzeko auditoretza-ebidentzia bezainbesteko eta behar bezalakorik ezin badu lortu, eta ondorioztatzen badu atzeman ez diren akatsek, halakorik balego, finantza-egoeretan izan ditzaketen eraginak izan daitezkeela materialak eta orokorrak, eta ez zaigu iruditzen hori denik Irurtzongo Udalaren egoera.

II.- BANKU-MUGIMENDUAK ITXURAN ORGANO ESKUDUNAREN JUSTIFIKAZIO-RIK GABE EGITEARI BURUZ.-

Udaleko idazkariaren txosten juridikoak adierazten duen bezala, auditoretza-prozeduraren barruan Kontuen Ganberak alkateari eta idazkariari eskatu zien entitatearen banku-kontuak azter zitzaten.

Hori egitean kontuetan deskoadratze batzuk identifikatu ziren. Behin-behineko txostenak berak aitortzen du banku-kontziliazioaren emaitza zuzena izan dela, eta ez dela agertzen alkateak inongo ordainketa-libramendurik egin izana alkateak berak sinatzeko baimekin ez duen banku-kontuetarako kargura egindako transakzioetan.

Halaber, adierazten du kontu-hartzaileak egindako funts-mugimenduak itzuli egin direla kontu-hartzaileak berak nomina-konpentsazioak eginez, inguruabar hori espresuki jasotzen den nominarik prestatu ez bada ere.

Berriz ere, ez dirudi erabaki arbitrario bat denik, baizik eta lege-esparruaren barruan hartutako erabakiak, zuzen exekutatu ez badira ere.

Hala ere, exekuzio oker horietatik zenbait erantzukizun etor litezke. Erantzukizun horiek Kontuen Ganberak berak adierazi zizkion Udalari, haiek aztertze gomendioa ere egin ez.

Alkateak eta Udaleko idazkariak banku-kontuen gainean egindako alde aurreko azterketa horretatik ondorioztatzen da 2021eko ekitaldian kontu-hartzaileak egindako banku-mugimendu guztiak itzuli egin direla, nomina-konpentsazioen bidez, Kontuen Ganberak berak bere behin-behineko txostenean aitortzen duen bezala (txosteneko 23. orrialdea). Hori guztia ezertan ukatu gabe zigor-arloko prozeduran erabakitakoa.

Horrekin batera, eta auditorearen gomendioei jarraikiz, alkatea, Udaleko idazkariarekin batera, Iruñeko Guardiako Epaitegira agertu (2. Instrukzio-epaitegia) eta agintaritza judizialari jakinarazi zizkion gertakariak (19. dokumentua).

Ildo berekoa izan zen Udaleko idazkariaren iritzia, 2023ko martxoaren 7ko txostenean adierazi baitzuen banku-informazioa organo judizial eskudunaren eskura jarri eta zehapen-espeditatea edo kontratua suntsiaraztekoa ireki behar zitzaiola Kontu-hartzailetzako lanpostua betetzen duenari. Erabaki hori Nafarroako gobernuko Toki Administraziooko Zuzendaritza Nagusiarekin partekatu zen.

Horregatik, alkateak martxoaren 8ko 56/2023 Ebazpena eman zuen, administrazio-kontratua azkentzeko prozedura abiarazten duena (20. dokumentua). Gaur egun aipatu espeditatea dago interesdunak aurkeztutako alegazioak ebazteko fasean.

Maiatzaren 12an alkateak Alkatetzaren 88/2023 Ebazpena eman zuen (21. dokumentua), zeinaren bidez onetsi baitzen Irurtzango Udala agertzea Iruñeko Instrukzioko 5. Epaitegian instruitzen ari diren 771/2023 aurretiazko eginbideetara, Udalaren interesak defendatzeko.

Erabaki hori Udalbatzak berretsi beharko du, egiten duen hurrengo Osoko bilkuran.

Horrek guztiak frogatzen du, berriz ere, Udalak duen borondatea egoera zuzendu eta etor litezkeen erantzukizunak argitze aldera.

III.- TXOSTENAK BILTZEN DITUEN GAINERAKO GOMENDIOEI BURUZ.

Azalduta geratzen ari denez, behin-behineko txostenak gomendio ugari biltzen ditu, eta haiei dagokienez erabaki batzuk hartu dira.

1.-Inbertsioen arlokoak

Kontuen Ganberak inbertsioen arloan egiten dituen gomendioak Idazkaritzako eta Kontu-hartzaitzako langileei helarazi zaizkie, aurreko paragrafoan aipatu den komunikazio beraren bidez.

2.-Transferentzia-gastuen arlokoak

Txostenak dio neurriak hartu behar direla Udalak ematen dituen dirulaguntzen inguruan.

Ildo horretatik, Irurtzango Udalak hasiera eman dio dirulaguntzei buruzko plan estrategiko bat prestatzeko prozedurari, non urtero planifikatuko diren Udalak kudeatzen dituen dirulaguntzak.

Hala ere, ez da ahaztu behar 2021eko ekitaldian Udalak emandako dirulaguntza guztiak kasuko administrazio-egintzen bidez onetsi direla, dela Udalbatzaren erabakiz (gehienetan) dela Alkatezaren ebazpenez.

Horrekin batera, dirulaguntzen plan estrategikoa onesteko prozedurari hasiera emateaz gain, Udala hasi da kasuko hitzarmenak sinatzen Udalaren zuzeneko dirulaguntzak jasotzen dituzten elkarteekin. Horren adibide dira Haize Berriak edo Escudería Arakil Motosport elkarteekin jadanik sinatu diren hitzarmenak (22. dokumentua).

Beraz, alderdi horretan ere abian jarri dira txostenean biltzen diren gomendio guztiak betetzeko izapideak.

3.- Tributu, prezio publiko eta beste diru-sarreraren batzuen arlokoak

Zergei dagokienez, izapideak abiarazi dira tributuen kontrolerako plan bat prestatzeko. Plan horren bidez iruzurraren prebentzio eta kontrolerako arloan jarduteko ildo nagusiak egituratuko dira.

Horrekin batera, Kontuen Ganberak arlo horren inguruan egindako gomendio orokorrak alkateak Idazkaritzako zein Kontu-hartzaitzako langileei igorritako komunikazioan sartu dira.

Espresuki, jasota geratu da EIOZaren subjektu pasiboari obraren amaierako exekuzioaren ziurtagiria eskatu egin behar zaiela, zerga horren behin betiko likidaziorako.

Amaitzeko, aipatzekoa da maiatzaren 9an Alkatezaren 84/2023 Ebazpena eman dela, zeinaren bidez agintzen baita premiamendu probidentziak izapidetzea aplikatzekoa den araudiari jarraikiz eta Kontu-hartzaitzak tributuen kontrolerako plan bat prestatzea (23. dokumentua).

4.- Transferentzien bidezko diru-sarreraren inguruan

Alderdi horretan ere Ganberaren gomendioak jasota geratu dira Idazkaritzako eta Kontu-hartzaitzako langileei igorritako komunikazioan.

IV.- ONDORIOAK.-

Lehena.- Gure ustez badago iritzi bat ematea Irurtzungo egoera finantzario eta kontabilitatekoari buruz, nahiz eta kasuko salbuespenak egon daitezkeen. Horregatik, ez gatoz bat behin-behineko txostenean proposatzen den iritzi errefusarekin.

Bigarrena.- Aurreko apartatuetan bildutako guztiagatik, agerikoa da Udalak bete egin dituela Kontuen Ganberak egindako gomendio ia guztiak eta prest agertu dela behar diren izapide guztiak egiteko gertakariak argitu eta, kasua bada, beharrezkoak diren neurriak hartze aldera.

Ildo horretan, azpimarratu behar da txostenak prestatzeko eskaria egin zaiela Idazkaritzari, Kontu-hartzaitzari eta Udaletik kanpoko abokatu-bulego bati; edo Alkateak bost ebazpen baino gehiago eman duela Ganberaren gomendioak betetzeko. Edo, bestela, Kontuen Ganberako auditorearen gomendioei jarraikiz gertakariak Guardiako Epaitegiari jakinarazi zaizkiola eta Udala aurretiazko eginbideetara agertu dela bere interesak defendatzeko. Gainera, Udalak hasiera eman die administrazio-kontratua azkentzeko izapideei.

Era berean, aipatu behar da ganberak atzemandako deskoadratzeen arrazoiak izan direla, askotan, prozedurako akatsak edo teknikoki gaizki exekutatuak erabakiak. Ez dira Udaleko teknikariek edo izaera politikoko langileek hartutako erabaki arbitrario edo subjektiboak, dokumentu honetan behin eta berriz azaldu den bezala.

Gainera, gogoratu behar da alkateari ez zitzaiola behin ere ohartarazi orain azaleratu diren deskoadratzei buruz, ez Udaleko langileen ez Udaletik kanpoko erakunde edo teknikarien aldetik ere.

Hirugarrena.- Gehitu egiten da Udaleko Idazkaritzak 2023ko maiatzaren 19an presatutako alegazioen txostena, behar diren ondorioetarako (24. dokumentua).

Horregatik guztiagatik,

ESKATZEN DUT: Idazki hau aurkeztutzat hartuta, onar dezala eta, horrenbestez, Irurtzungo Udalak egindako alegazioak onar ditzala eta ematen den kasuko behin betiko txostenean sar ditzala.

Irurtzunen, 2023ko maiatzaren 18an.

Alkatea, Aitor Larraza Carrera.

Dokumentu erantsien indizea:

1. dokumentua: 2020ko abenduaren 12ko Osoko Bilkuraren akta.
2. dokumentua: 2022ko urriaren 21eko Osoko Bilkuraren akta.
3. dokumentua: Alkateak Idazkaritzako eta Kontu-hartzailetzako langileei igorritako komunikazioa, legeak esleitzen dizkien eginkizunak gogorarazteko.
4. dokumentua: Alkatetzaren 87/2023 Ebazpena, zeinaren bidez agintzen baita premiaz berrikustea Udalaren barne-kontrolerako sistema, haren egitura eta lanpostuen balorazioa.
5. dokumentua: Alkatetzaren 80/2023 Ebazpena, zeinaren bidez adierazten baita nola jokatatu behar den fakturen ordainketa onartu eta agintzerakoan.
6. dokumentua: Banku-entitateekiko komunikazioak, sinadura mankomunatu ezartzeko.
7. dokumentua: Udaleko idazkariak lan-aholkularitzari igorritako mezu elektronikoa, ordainsarrietan diren aldeak kalkulatzeko eskatzeko.
8. dokumentua: Udaleko idazkariak lan-aholkularitzari igorritako mezu elektronikoa, Idazkaritzako eta Kontu-hartzailetzako langileen nominen aldaketa jakinarazteko.
9. dokumentua: Alkatetzaren 11/2023 Ebazpena, zeinaren bidez irekitzen baita gertakariak argitzeko espedientea.
10. dokumentua: Biderka abokatu-bulegoak prestatutako txosten juridikoa, garbiketako langileen subrogazioari buruzkoa.
11. dokumentua: Udaleko Idazkaritzak prestatutako txosten juridikoa, gertakariak argitzeko espedientearen gainekoa.
12. dokumentua: Udalbatzaren 2023ko martxoaren 7ko erabakia, zeinaren bidez irekitzen baita nominak aztertzeke eta plantilla organikoa aldatzeke espedientea.
13. dokumentua: Plantilla organikoaren aldaketaren behin betiko onespenerari buruzko iragarkia, maiatzaren 22ko 106. NAO n argitaratua.
14. dokumentua: Lan arloko aholkularitzak prestatutako txosten juridikoa, 2021eko ekitaldiko ordainsarien arteko aldeei buruzkoa.
15. dokumentua: 2012ko uztailaren 3ko Osoko Bilkuraren akta.
16. dokumentua: 2013ko urriaren 25eko txosten juridikoa, garbiketako langile subrogatuaren ordainsariei buruzkoa.
17. dokumentua: 2017ko ondasunen inbentarioa.
18. dokumentua: Udaleko kontu-hartzailearen ziurtagiria, egoera-balantzearen pasiboari buruzkoa.
19. dokumentua: Alkate jaunak Iruñeko Instrukzioko 2. Epaitegira egindako agerraldiaren kopia.
20. dokumentua: Alkatetzaren 56/2023 Ebazpena, zeinaren bidez administrazio-kontratua

azkentzeko prozedura abiarazten baita.

21. dokumentua: Alkatetzaren 88/2023 Ebazpena, zeinaren bidez onesten baita Udala 771/2023 aurretzeko eginbideetara agertzea.

22. dokumentua: Haize Berriak eta Escudería Arakil Motosport elkarteekin sinatutako hitzarmenak.

23. dokumentua: Alkatetzaren 84/2023 Ebazpena, zeinaren bidez agintzen baita premiamendu probidentziak izapidetzea eta tributuen kontrolerako plan bat prestatzea.

24. dokumentua: Udaleko idazkariak 2023ko maiatzaren 19an alegazioei buruz prestatutako txostena.

**BEHIN-BEHINEKO TXOSTENARI AURKEZTUTAKO ALEGAZIOEI KONTUEN GANBERAK EMAN-
DAKO ERANTZUNA**

Eskerrak ematen dizkiogu Irurtzongo Udaleko alkateari aurkeztutako alegazioengatik. Horiek txosten honetan jasotzen dira, ganbera honek emandako erantzunarekin batera.

Horri dagokionez, honako hau adierazi behar dugu:

1. Eginiko auditoretzaren irismen objektiboa dagokio 2021eko ekitaldiko Kontu Orokorrari; horrenbestez, adierazitako akats guztiak 2021eko ekitaldiari buruzkoak dira; eta horiek dira, osotasunean, gure iritzia errefusatzeko oinarri gisa harturikoak.
2. Aurkeztutako alegazioek doitasun handiz zehazten dituzte udalak hartu dituen edo hartzen ari den neurri guztiak, gure txostenean aipatutako ahuleziak eta akatsak zuzentzekoak. Nolanahi dela ere, 2023ko ekitaldian kokaturiko urratsak dira, inola ere aldatzen ez dituztenak ez 2021eko ekitaldian detektaturiko egoera eta inguruabarrak, ez eta, ondorioz, gure iritzia ere.

Alegazio horiek behin-behineko txostenari eransten zaizkio eta hori behin betikotzat hartzen da, egin-dako fiskalizazioaren azalpena direlako eta ez dutelako edukia aldatzen.

*(Ignacio Cabeza del Salvador Nafarroako Kontuen Ganberako lehendakariak digitalki sinatua al-
boan ageri den egunean, 2023-05-30ean)*

